

GRADU AMAIERAKO LANA

NESKEN PARTAIDETZAREN ANALISIA ESKOLA KIROLEAN

EGILEA: AMIAMA JAUREGI JON

ZUZENDARIA: SESMA EIZAGUIRRE JOSEBA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

IKASTURTEA: 2015/2016

DEIALDIA: EKAINEKO DEIALDIA

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA	6
2. MARKO TEORIKOA	7
2.1. Jarduera fisikoaren onurak gizartean	7
2.2. Jarduera fisikoaren kontzientzia euskal gizartean.....	9
2.3. Jarduera fisikoaren jardutea euskal gizartean.....	9
2.4. Euskal erakundeen erantzuna.....	10
2.5. Egungo haur eta gazteak: etorkizuneko gizarte aktiboagorako gako	14
2.6. Eskola kirolaren marko legala	15
2.6.1. Kontzeptua.....	15
2.6.2. Helburuak	16
2.6.3. Funtzioak	18
2.6.4. Ibilbideak.....	18
2.6.5. Kategoriak.....	20
2.6.6. Jarduera motak.....	20
2.6.7. Eskola Kirolaren Euskal Batzordea.....	21
2.6.8. Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua	21
2.6.9. Eskumenak	21
2.7. Eskola kirolaren egungo egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.....	23
2.8. Nesken jarduera fisiko eta kirol ohiturak	30
2.8.1. Eragin faktoreak nesken kirolean.....	31
3. IKERKETAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA	36
3.1. Ikerketaren helburuak	36
3.1.1. Helburu orokorrak	36
3.1.2. Helburu espezifikoak.....	36
3.2. Ikerketaren diseinua.....	37
3.3. Informazioa eskuratzeko tresna	37

3.4. Partaideak: Ikerketako subjektuak	38
3.4.1. Partaideen ezaugarriak.....	38
3.4.2. Partaideen testuingurua.....	38
3.4.3. Partaideen hautaketaren justifikazioa	42
4. FOCUS GROUPAREN ANALISIA	45
4.1. Kokapena.....	45
4.2. “Eskaintza” dimentsioa.....	48
4.3. “Beste zereginak” dimentsioa.....	52
4.4. “Harremanak” dimentsioa.....	55
4.5. “Eskola” dimentsioa.....	60
4.6. Hausnarketa.....	60
5. ONDORIOAK.....	63
5.1. Focus grouparen ondorioak	63
5.2. Hausnarketa: Ondorio orokorra.....	67
5.3. Marko teorikoarekiko ondorioak	71
6. EKARPENA: ESTRATEGIEN DISEINUA	73
6.1. Eskaintza estrategiak	73
6.2. Harreman estrategiak.....	74
6.3. Kontzientziazio estrategiak	75
7. LANAREN MUGAK.....	76
8. ETORKIZUNeko LAN ILDOAK	77
9. ERREFERENTZIAK.....	78
10. ERANSKINAK	85
10.1. 1. Eranskina: 2016/04/28 FOCUS GROUP (Audioaren itzulpena).....	85

TAULEN AURKIBIDEA

1.Taula: 2014-2015 denboraldian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan matrikulatutako haur eta gazteek eskola kirolean izandako partaidetza-tasa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua).....	24
2.Taula: EAEko 2014-15 denboraldiko partaidetza-tasak: kategoria eta generoaren arabera (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua).....	26
3.Taula: Partaideen hastapeneko aldagai eragileen hautematea (neuk landua).....	46
4.Taula: Partaideen uzte uneko aldagai eragileen hautematea (neuk landua).....	47
5.Taula: Partaideen jarraipenerako eskaintzaren aldagai eragileak (neuk landua).....	48
6.Taula: Partaideen jarraipenerako beste zereginen aldagai eragileak (neuk landua).....	52
7.Taula: Partaideen jarraipenerako harremanen aldagai eragileak (neuk landua).....	55
8.Taula: Partaideen jarraipenerako eskolaren aldagai eragileak (neuk landua).....	60
9.Taula: Eskola kirolaren ekarpen hautematearen hausnarketa (neuk landua).....	61

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. **Grafikoa:** 2014-2015 denboraldian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan matrikulatutako haur eta gazteek eskola kirolean izandako partaidetza-tasa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua).....24
2. **Grafikoa:** 2014-2015 denboraldian EAEn matrikulatutako haur eta gazteek eskola kirolean izandako partaidetza-tasa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua).....26
3. **Grafikoa:** 2014-2015 denboraldian Euskal Autonomia Erkidegoan eskola kirolean parte hartu dutenen generoaren araberako bereizketa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua).....28
4. **Grafikoa:** 2014-2015 denboraldian Euskal Autonomia Erkidegoan eskola kiroleko partaideen generoaren araberako bereizketa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua).....29
5. **Grafikoa:** 2014-2015 denboraldian hiru lurraldeetako partaideak generoaren arabera bereizita (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak)(neuk landua).....29
6. **Grafikoa:** 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko generoaren araberako partaidetza-tasa Gipuzkoan (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta KirolBegi:Gipuzkoako kirol-behatokia, 2016) (neuk landua).....39
7. **Grafikoa:** 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko kimutik haurretarako igaroaren bilakaera neska Gipuzkoarretan (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta KirolBegi:Gipuzkoako kirol-behatokia, 2016) (neuk landua).....40
8. **Grafikoa.** 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko generoaren araberako partaidetza-tasa herrian (Iturria: Herriko eskola kiroleko koordinatzailea) (neuk landua).....41
9. **Grafikoa.** 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko kimutik haurretarako igaroaren bilakaera herriko nesketan (Iturria: Herriko eskola kiroleko koordinatzailea) (neuk landua).....42
10. **Grafikoa:** Ondorio orokorraren adierazpena (neuk landua).....69

1. JUSTIFIKAZIOA

Eskola kirola, modu orokorrean, euskal lurretako haur gehienen kirol praktikaren abiapuntutzat jo daitekeen jardueratzat defini daiteke. Honen arrakastak beraz, etorkizunean kirol jardueri jarraipen emateko aukerak ere areagotu ditzake, gizarteko haurren aktibotasuneranzko joeran laguntzearekin batera, lehen urteek etorkizuneko jardute mailan eragina baitute.

Zentzu honetan, iraganean bizitako eta egun ikusitako errealitatearekin neskek eskola kirolean duten partaidetza azpimarratu nahi izan da. Bertan, nire eskola kirol hastapen garaian gutxi ziren taldean nituen neskek edota arerioak, egun ere ezagun dudan errealitatean tendentzia bera jarraitzen duelarik tamalez. Egoera honen aurrean ikuspegi bilakaera eman dut; iraganean honen inguruan pentsatzen ez nuena beranduago arraro egitera igaro, eta egun kezkatzera pasaz. Zer dela eta ez dira neskek mutilak beste ikusten eskola kirolean?

Emakumea eta kirolaren arteko lotura ulertzeko komunikabide ezberdinek kirolari eskaintzen dioten guztizko denboraren zein proportzio den emakumeentzat ikusi besterik ez dago, lagungarritzat behintzat jo ezin daitekeena. Goi mailako kirolek oinarritzko eta guztientzakora berriro itzuliz, neska gazteen kirol partaidetzaren kezka hau izan da gai hau hautatu eta aztertzeke arrazoia.

Honetarako, lehenik egoera aztertzeraz jo da, autorearen bizipen eta pertzepzioak Euskal Autonomia Erkidego mailako datuekin alderatzeko. Egoera honen aurrean, errealitatea aztertzeke horren parte izandako neskekin elkartu baino hoberik ez dagoela jakitun euren bizipenak izan dira lan honen ardatz, estimu handiko ekarpenak izan direnak. Honela, ondorengo orrietan egoera gertutik ezagutu, ahal den heinean partaidetzan eragina duten aldagai eta egoera ezberdinak identifikatzen eta ulertzen ahalegindu, eta partaidetza honetan lagun dezaketen irtenbide proposamenak diseinatu nahi izango dira hurrenez hurren.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Jarduera fisikoaren onurak gizartean

Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) 1946. urteko eta gaur egun ere darabilten osasunaren definizioan osasuna “erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialaren egoera da, ez soilik gaixotasun eza”-tzat jotzen da (Organización Mundial de la Salud, 1946, 2014). Definizioaren zehaztasun eta egokitasunaren eztabaidan sartu gabe, azken urteetan jarduera fisikoak eta kirolak hiru aspektu hauetan eragina izan dezakeela ikusi da, pertsonaren bizi kalitatean eragiten duten aldagaietan. Are gehiago, duen eragina positiboa eta onuragarria dela azaltzen dute ikerketa ezberdinek; hau adierazten dutenen artean, eta alderdi mentalari dagokionez, ariketa fisikoa burutzeak epe laburrean dakartzan onuren artean antsietatearen murrizketa aipa daiteke, egoera emozionalaren intentsitatearen txikitzea baitakar. Epe luzerako onura psikologikoei erreparatuz, irudi korporalean hautemandako, autoestimako edo antsietateko mailetako onurak antzeman daitezke besteak beste (Caracuel eta Arbinaga, 2010; Mutiloa eta lank., 2011). Honetarako, jarraikortasunaren garrantzia aspektu ezinbestekoa da, Caracuel eta Arbinagaren (2010) arabera gutxienez 10 asteko jardutea izan behar du onurak antzematen joateko.

Warburton, Nicol, eta Bredinek (2006) diotenez ere egunerokotasunean jarduera fisikoa burutzea ongizate psikologikoarekin harremanetan dago aipaturiko antsietateaz gain estresa edota depresioaren murrizketarako lagungarri baita. Ongizate psikologikoak, aldi berean, fisiologikoki ere eragiten du, bereziki gaitz kardiobaskularren prebentzio eta hobekuntzarako garrantzitsu izanik. Honez gain, beste gaixotasun kroniko batzuetan eragin positiboa ere antzeman daiteke; diabetes, osteoporosi, hipertentsio, obesitate edota minbizian kasu (Warburton eta lank., 2006).

Aspektu fisiologiko ezberdinak hobetzearekin, ariketa fisikoa egitearen ohitura eta bizi aktiboko beste aldagai batzuen laguntzaz, hala nola, ez erretzea edota nutrizio egokia, norbanakoaren alderdi fisikoa ere hobetuko da. Warburton eta lank.-ek (2006) aurrez aipatutako ongizate psikologikoak dakartzan onurez gain, beste batzuk ere gehitzen dituzte: mortalitate kardiobaskularren arrisku murrizketa (Diaz eta lank., 2014; Warburton eta

lank., 2006) (honen morbiditatean %50a baino gehiago murrizten da arriskua forman edo aktibo egonik), heriotza goiztiarra izateko arrisku baxuagoa, arteria koronarioen gaitzen prebentzioa, II motako diabetesaren arrisku murrizketa, diabetesdunen glukosa homeostasia hobetzea, kolon zein bular minbiziaren intzidentzian murrizketa edota osteoporosiaren prebentzioa eta honek dakarren hezur hausturen murrizketa (hezurren mineral dentsitatean dituen efektuei esker).

Mutiloa eta lank.-ek (2011) eginiko planean jasotako 2010eko "ariketaren arrisku eta onuren laburpena" Uptodate berrikusketako ondorioetan gihar zuntzen tamaina, mota eta odol fluxuaren hobekuntza, oxigeno kontsumoaren eta biriken gaitasunaren areagotzea, presio arteriala jaitea (hipertentsioaren aurkako jarrera), immune sistemaren hobekuntza edota erresistentzia periferikoaren murrizketa ageri dira ariketa fisikoa egiteak dituen eragin positiboen artean. Plan honetan bertan ere Europar Batasuneko Jarduera Fisikoko Ildoen dokumentuak dioena jasotzen da, non aurrez aipatuak diren onura batzuez gain indarraren eta gihar erresistentzien hobekuntza edota artikulazioen egituraren eta funtzioen mantentzea ahalbidetzea aipatzen diren.

Janssen eta LeBlanc-ek (2010) eginiko eskola garaiko haur eta gazteetan jarduera fisikoak dakartzan onuren inguruko meta analisisian ere obesitate kasuetan edota hezurren mineralen dentsitatean (osteoporosiarekin loturan) onurak ikusten direla ondorioztatzen da Warburton eta lank.-en (2006) artikuluan bezala, intentsitate moderatu eta kementsuaren garrantzia azpimarratzen delarik (azken honekin emaitza hobeak izanik).

Hirugarren eta azken aldagaiari dagokionez, jarduera fisikoak ere badu ongizate sozialean esku-hartze positiboa. Hau, 2006-07an Bizkaiko hiru zentrotako haurrekin eginiko eskola kirolaren inguruko ikerketa batetik ateratako ondorio ezberdinen artean aipatzen da besteak beste. Bertan, mutil zein neskei kirolak sortzen dizkien gozamenen artean "lagunekin egotea eta lagunak egitea" erantzun komun gisara aitortzen dute. Azken batean, haur hauentzat kirola egiteko arrazoietak bi dira jendea ezagutzeko aukera eta taldekide zein entrenatzaileekin harremana izatearenak (Vizcarra, Macazaga, eta Rekalde, 2009).

2.2. Jarduera fisikoaren kontzientzia euskal gizartean

2009an Gipuzkoako emakume helduen jarduera fisiko eta kirol ohituren inguruko ikerketan jarduera fisiko eta kirolaren erabilgarritasunaz galdegin zieten besteak beste. Hau finkatzeko zeuden aldagai ezberdinen artean hirugarren baloratuena izan zen, “osasun eta forma fisiko” eta “tentsioen askatzaile” aldagaien ostean. Emakume helduen erdiak baino gehiagok, %51,5ak hain zuzen, sozializazioaren aldagaia garrantzitsutzat (%33,6) edo nahiko/oso garrantzitsutzat (%17,9) jo zuten (Arruza, Aldaz, Arribas, eta Gil de Montes, 2009). Urte horretan bertan Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eginiko kirol ohituren inkestak adierazten duenez “kirol jarduera baliagarri da” itemarekin guztiz ados daudenen artean lehen hiru aldagai baloratuenak horietan izan dira; forman egotea, deskonektatzea eta sozializatzea (Dirección de Deportes-Departamento de Cultura, 2009).

OMEren 1946ko osasunaren definizioko hiru aldagaietan jarduera fisikoak eta kirolak duen eragin positiboa ikertzaile ugariaren lanek argi utzi dute, aurreko lerroetan ikus daitekeen bezalaxe. Ikertzaileek aztertutakoaz gain, euskal gizartea ere hein batean jakitun da jarduera fisikoa zein kirola egiteak eman ditzakeen onurez. Hau adierazten digute aipatutako 2009an Gipuzkoako zein EAE-ko ikerketek, non jarduera fisikoa egiteak dituen hiru onura baloratuenetan forman egotea edo forma fisikoa (ongizate fisikoa), tentsioen askatzaile edo deskonektatzea (ongizate psikologikoa) eta sozializazioa (ongizate soziala) ageri diren (Arruza eta lank., 2009; Dirección de Deportes-Departamento de Cultura, 2009). Honekin, modu teorikoan gutxienez euskal gizarteak jarduera fisikoak ekar ditzakeen onuren berri eta hauetaz jabetzen direla ondoriozta daiteke.

2.3. Jarduera fisikoaren jardutea euskal gizartean

Teoriatik praktikara joz gero, hau da, beste modu batera esanda ezagutzatik jardutera, jarduera fisikoaren praktikak aurreko inkestarekiko (2007) gora egin arren, EAEko gizonen %27a (2007an %32a) eta emakumeen %34a (2007an %35a) sedentario da 2013an argitaratutako EAEko Osasunaren

Inkestaren arabera (ariketa fisiko osasuntsua burutzen ez duen pertsona oro hartuko da sedentariotzat) (Departamento de Salud, 2013). Beraz, EAeko populazioari dagokionez, lau gizonetatik bat sedentariotzat jotzen da, eta emakumeen kasuan hirutik bat. Honez gain, obesitate prebalentziari so eginez EAeko gizonen %14ak pairatzen du, eta emakumeen %12ak (mundu mailako bataz bestekoa gizonen %11 eta emakumeen %15an egonik (Organización Mundial de la Salud, 2016)).

Datu hauen arabera azken urteetako egoerak zertxobait hobera egin duen arren, hainbat dira oraindik ere sedentario edota obeso direnak. Gorputzeko Masa Indizea (GMI), pisuaren eta altueraren erlaziotik sortutako balioa (kg/m^2), 30 edo hemendik gora duen oro jotzen da obesotzat OMEren definizioaren arabera (Organización Mundial de la Salud, 2016). Honi loturik, pertsona hauek ez dira aurrez aipaturiko jarduera fisikoa egiteak dakartzan onura anitzez baliatuko, are gehiago, gaixotasunak garatzeko aukera gehiago izango dituzte arrisku faktore den aldetik.

2.4. Euskal erakundearen erantzuna

Egoera honi irtenbide eman eta bizi ohitura osasuntsuak sustatze aldera hainbat dira azken hamarkadan EAEn martxan jarri diren plan eta programak; hauen artean, besteak beste, Kirolaren Euskal Plana (2003-2007), 12-18 urte bitarteko kirolaren sustapen plana (Gipuzkoa, 2005), Jarduera Fisikoaren Euskal Plana (2011), Aktibili (2011), Mugiment (2013-2020), Osasun Plana (2013-2020), Euskadiko III. Gazte Plana 2020 (honen barnean 2014-2016koaren aipamena egingo delarik) edota Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia (2015-2020) ditugularik.

- **Kirolaren Euskal Plana 2003-2007:** 2003. urtean Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirolaren Euskal Kontseiluak abiarazitako plana da. Kirolaren sustapena pertsonen prestakuntza eta garapen integrala batetik, eta norbanako zein gizartearen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko gakotzat jotzen dute Jaurlaritzatik. Planean, euskal kirolaren difusio bide ezberdinak aztertuz, hau da, eskola kirola, partaidetzakoa,

errendimendukoa, goi errendimendukoa eta bestelakoak, lau helburu estrategiko nagusi bereizten dira: bertako Kirol Eredua garatzea, eredu hau eragile ezberdinen elkarlanaz egituratzea, kirol zerbitzuaren eskaintzaren kalitatea hobetzea eta kirolaren sustapena euskal kulturaren identitatea zabaltzeko bide gisa baliatzea (Kultura Saila, 2003).

- **12-18 Urte Bitarteko Kirolaren Sustapen Plana:** Gipuzkoan 2005ean eginiko plana da, helburu nagusizat adin horietako gazteen kirol praktikaren sustapena duena. Honekin batera, kirol praktiken kalitatea hobetu nahi da baita ohiko jardule kopurua areagotu ere (Diputación Foral de Gipuzkoa, 2005).
- **Jarduera Fisikoaren Euskal Plana:** 2011. Urtean Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kirol Zuzendaritzetatik abiatutako plana. Sortutako plan honek baliabide iragankor gisa jardun nahi du, hau oinarri izanik bertan inizatiba eta ekimen ezberdinek lekua dute, beti ere ariketa fisikoaren jardute erregularraren sustapena eta sedentarismoaren murrizketa helburutzat badituzte. Sentsibilizazioa lortu nahi da Euskal Lurraldean, ikertzaile eta sustatzaileen arteko koordinazioa indartzeko baliagarritasuna bilatu nahiaz gain (Mutiloa eta lank., 2011).
- **Aktibili:** 2011. urtean Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako plana, 2010ean estatu mailako “Plan Integral de Actividad Física y Deporte”-ko zein europako planteamenduekin bat egin nahirik. Bere ekintzarako markoko hasierako esaldiak argi uzten du plan honen target-a zein helburu nagusia: “Euskal gizarte guztiaren inizatiba pertsona aktiboagoak izan gaitezen”. Honek populazio osoaren jarduera fisiko praktika areagotzeaz eta jokabide sedentarioak mugatzeaz arduratuko dela adierazten du.
Ekite esparru zabala du; hala nola, herri mailan, mugikortasunean, hiri esku-hartzean, osasun arloan, hezkuntzan edota lan eremuan, bakoitzari estrategia ezberdinak ezarriz (Aktibiliko Batzorde Koordinatiboa, 2011;

Aktibiliko Batzorde Koordinatzailea, 2011). Modu honetan, ekite esparru zabalarekin gizarteko populazio guztian eragin nahiko da.

- **Mugiment:** 2013-2020 urte bitartean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta Osasun Sailak sortutako plan estrategikoaren parte da (2013-2020ko Osasun Planarekin bat etorriz (Osasun Saila, 2014), udalerriak ardatz izanik helburutzat EAEko jardura fisikoaren sustapena duena (Hezkuntza- Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Osasun Saila, 2013).

Honetarako, azpiataletan banatzean datza estrategiak:

- *Mugisare:* Komunitateari zuzendua, planaren engranaje edo ardatz nagusia da, estrategiak kudeatu eta guztia sartzeko sortua.
- *Mugibili:* Biztanle orori zuzendua, egunerokotasunean oinez gehiago ibiltzeko sortua.
- *Mugiegun:* Biztanle orok kirol ekitaldietan parte hartzeko sortua.
- *Mugikasi:* Haurrei zuzendua, ikastetxean jardura fisikoari denbora gehiago eskaintzeko sortua.
- *Mugieragin:* Osasunaren eta kirolaren arloetako profesionali zuzendua, formazio eta prestakuntzarako ikuspegitik sortua.
- *Mugibeti:* Adineko biztanleei zuzendua, hauen beharrak kontuan izanik jardura fisikoaren praktika bultzatzeko sortua.
- *Mugitoki:* Tokian tokiko eragile nagusi, profesional zein adituei zuzendua, eguneratuak egoteko erreferentzi zentroa osatzeko sortua.
- *Mugilan:* Lantokietara zuzendua, bertan praktika erraztu eta egoneko jarrerei aurre egiteko sortua.

Beraz, bi urte lehenago Aktibili-n (2011) proposatu bezala, Mugiment-ek azpiatalak sortzearen strategiaren bitartez jardura fisikoaren sustapenerako beharra duten guneak identifikatu eta bakoitzari espezifikotasunez aurreriteko ekintzak proposatzen ditu.

- **2013-2020 Osasun Plana:** 2013-2020 urte bitartean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta Osasun Sailak

sortutako plan estrategikoa da. Helburuen artean euskal herritarren osasuna eta bizi kalitatea, desberdintasunak gutxitzea eta antolaketa hobetzea daude. Plan honen target-a populazio osoa den arren, inguru eta jarrera osasuntsuen gidalerroa horren adibide, aipamen berezia egiten die gaixotasunak pairatzen dituztenei, zahartzarorantz edo bertan daudenei edota haur zein gazteen osasunari (Osasun Saila, 2014).

- **Euskadiko III. Gazte Plana 2020 (2014-2016):** Eusko Jaurlaritzatik gazteen egoera (aspektu ezberdinetan) 2020ra bitarte hobetzeko sortutako planaren parte den epe laburrera begirako atala, 2014-2016 tarteari dagokiona hain zuzen. Hauetan, gazteengan eragina duten aspektu ezberdinen artean osasunarena aipatzen da, bertan jarduera fisikoak lekua izanik. Behin egoera kokatuta helburu estrategiko eta esku-hartze ildoak ezartzen dira egoera hobetzeko asmoz (Gazteen Euskal Behatokia, 2013).
- **Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia:** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Sailak osatua da, 2015-2020 urte bitartean indarrean egongo dena. Bertan zahartzaro aktiborako aspektu ezberdinak hartu dira kontuan, horien artean zahartze osasuntsuaren sustapena jasotzen delarik. Finkatutako estrategien artean autonomia galeraren prebentzioa, taldekako jarduera fisikoen antolakuntza edota gimnasio zein jarduera egiteko guneetara gerturatzea sustatzea daude (Departamento de Empleo y Políticas Sociales, 2015).

Plan eta programa hauekin guztiekin euskal sektore publikoak gizarteko adin tarte eta segmentu guztietan jarduera fisiko ohitura eta bizi estilo aktiboak hedatu eta barneratzeko jarrera eta egindako saiakera ikus daiteke. Adin tarte guztiak kontuan izatea jarduera fisikoak guztiengan izan dezakeen eraginaren eta duen garrantziaren adierazle da, hortik erakunde publikoen aldetik eginiko apustua. Gizarte osoan bizitza aktiboa sustatzea bertako biztanleentzat oso onuragarria izango da (aspektu ezberdinetan, aurrez aipatu bezala), baina etorkizuneko gizarte aktiboa eraikitzeko ahalegina etorkizunean heldu izango

diren egungo haur eta gazteekin egin beharko da. Hots, hauen ohitura osasuntsu eta aktiboak abiarazi eta jarraipena ematen ahaleginduz.

2.5. Egungo haur eta gazteak: etorkizuneko gizarte aktiboagorako gako

Alor honetan, Viñas eta Pérezek (2011) eginiko estatu mailako ikerketa baten arabera eskola garaikoen inaktibotasun tasa %9koa da, beste %8ak jarduera fisiko antolatua, %28ak ez-antolatua eta %55ak biak eginez (antolatu zein ez-antolatua). Honekin, eskolako 10 haurretatik 1ek ez duela inongo jarduera fisikorik egiten eta 10tik 3k euren kabuz egiten dutela esaten da (“ez antolatua” den kasuetan bakoitzak eman diezaiokeen jarraikortasunaren menpe geratuko da aktibotasun maila). Adin hauetakoen jarduera fisiko eta kirolean eskola zein ikastetxeetan burutzen dutena eta hemendik kanpoko bereiz daitezke. Ikastetxeetakoan gorputz hezkuntzako ordu kopurua estatu mailatik ezartzeak honetara moldatu eta ordu gehiago ezartzeko zailtasuna suposatzen du. Halere ez da ahaztu behar, 125/2008 Dekretuak dioenez ikastetxea dela kirol jardueraren hasierako ernamuina, hortaz, haurren ohitura aktiboaren abiapuntu eta zaindu beharreko aspektu garrantzitsu.

Ikastetxeetan bizimodu aktiboaren sustapenean eragin zuzena izan dezakeen ikasgaiaren ordu kopurua arautua dagoenez, eta honetan esku-hartzea goi karguen eskumena izanik, zentroetarako estrategiek saio honez kanpo joan beharko dute. Honen adibide dira Eusko Jaurlaritzatik jaiotako Aktibili-k (2011) hezkuntza esparrurako sortutako estrategia (5.a hain zuzen) edota Mugiment-ek (2013) Mugikasi jardun lerroa sortu izana, hain zuzen lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendua dagoena. Lehenean estrategia hezkuntza komunitate aktiboagoak sortzean zentratzen da, ekite proposamen gisara patio orduetan joko aktiboekin dinamizatzea edota eskolako hurrek eguneko ordubeteko jarduera fisikoa bermatzea adieraziz. Bigarrean, eskola bideen sorrera, heziketa fisikoko klaseetan eguneroko ohiturak bultzatzeko baliabide didaktikoak eskaintzea edota ikasgai saio aktiboak diseinatzea proposatzen da ekintza gisara. Bi plan hauekin ikastetxeko esparruko jarduera

fisikoari denbora gehiago eskaintzea bilatu nahi izan dute, ikasleek hemendik kanpo ere aplikatu dezaten.

Zentroetan plan eta programa sustatzeaz gain, haur eta gazteen gune hauez kanpoko uneak baliatu beharko dira jarduera fisikoa eta kirolari jarraipena eman eta hauen ohitura aktiboari jarraipena emateko. Euskal lurretan eskola kirola izan daiteke honen adibide argiena, bertako gazte gehienek kirol arloko abiapuntu baina (Gazteen Euskal Behatokia, 2013). Hau dela eta, eskolaz kanpoko eta jarduera fisiko eta kirolaren testuingurutik gazteenen ohitura aktiboak sustatu eta barneratzen joateko tresna baliagarria izan behar da.

2.6. Eskola kirolaren marko legala

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kirola 125/2008 Dekretuaren bidez dago arautua. Honek 160/1990 Dekretua ordeztu eta 14/1998 Euskadiko Kirolaren Legeko V. Titulua garatzea izan du xede, bertan diseinaturiko eskola kirolaren eredia ezarriz. Dekretuak eskola kirolaren inguruko zehaztapen guztiak jasotzen ditu, hala nola, kontzeptua, erakundeen eskumenak, ibilbideak edota jardute esparruak (125/2008 Dekretua).

Ondorengo lerroetan 125/2008 Dekretuko hainbat puntu jorratuko dira EAEko eskola kirolak gaur egun duen egoera ulertzen laguntzeko asmoz (125/2008 Dekretua):

2.6.1. Kontzeptua

Dekretuaren arabera, “eskola kirola da eskola-umeek nahitaezko eskola-aldian baina eskola-orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera”. Hortaz, 6-16 urte bitarteko haur eta nerabe orok eskolaz kanpo eginiko kirol jarduerak barnehartzen dira bertan. Hauek gainera, haurren heziketa integralaren barruan kokatu beharko dira eta bereziki etapa bakoitzeko gorputz hezkuntzako helburuekin bat egingo dute (1 art.).

2.6.2. Helburuak

2008an ezarri zenaren arabera eskola kirolaren helburu nagusia “haur kirol-egilearen hezkuntza-garapena osatzea izango da, bai eta kirolari bakoitzaren banakako beharrianak asebetetzea ere” (125/2008 Dekretua). Hezkuntza-garapena egoteko kirola baliabide edo tresnatzat erabiliko du haurren ardura izango duen entrenatzaile edo irakasleak. Heziketa hau integrala izaten ahaleginduko da eskola kirola, baita haurren sarbidea eta partaidetza bermatzen ere. Azken hau berdintasunean eta sexu-estereotipo eta roletatik kanpo landuko dela zehazten delarik (125/2008 Dekretua).

Helburu nagusia den “kirol-egilearen hezkuntza garapena”-z gain, 125/2008 Dekretuan beste hainbat helburu zehazten dira, honakoetan laburtzen direnak:

- **“Nortasunaren garapena bultzatzea”**: Eskola kirolean aurki daitezkeen egoera anitzekin zein kirolak berak eskain ditzakeenekin haur edo gaztearen nortasuna garatzen laguntzean datza. Bizipen ugari eta ezberdinak izango ditu, eta hauekiko hartuko dituen jarrerekin bere nortasuna eraikitzen joango da.
- **“Geroko adinetan kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua eramatea bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohiturak eskuratu eta barneratzea”**: Azken batean, txikitan barneratu eta eginiko jarduera fisiko eta kirolak zeresana izango du etorkizunean. Hau bera diote Telama eta lank.-ek (2005), haur eta gazte garaiko jarduera fisiko ugariak helduen jarduera fisiko maila altua izatearekin harremana duela diotenean.
- **“Haurrek euren ingurune naturalean kirola egitea”**: Haurren partaidetza erraztu eta bermatzeko gertu izango duten eskaintza egiteak garrantzia izango du, eskuragarri ez badute barne motibazio handia beharko baitute urrunagoko lekuren batera jolastera-jokatzerara joateko.

- **“Modalitate eta ibilbide ezberdinak ezagutzea eta haien arteko oreka arrazoizkoa eskuratzea ahalbidetuko duen kirol aniztasuna ezagutzea”**: Eskola kirolak eskaintza anitza eta zabalarekin haurren erabakitzeko aukera eskaintzeaz gain modalitate ezberdinak ezagutu eta lantzea ere eskainiko dio. Honekin gaitasun motor eta abilezia ezberdinak landuko ditu, kirol bakoitzak bere barne eta kanpo logikak markatutakoak. Ibilbide ezberdinak ezagutzearekin errendimendukoa, parte-hartzekoa eta talentu zein promesen inguruko ideia bat izango dute, gustuen aritzen diren horretan trebatu daitezten. Azken batean, modalitate zein ibilbide ezberdin eta ugariak probatuz euren erabakia hartzeko irizpideak izango dituzte, etorkizun batean zein jardueran aritu nahi ote duten erabakitzeko hain zuzen.

Halere, aukera aniztasunaren beste aldean federazioak daude, euren eskaintzaren bitartez haurrek kirol bakarrera bideratzen dituztenak. egitea helburu dutenak (Abanda, 1998).

Gipuzkoaren kasuan, bertako 2014-15 denboraldiko programan onartu bezala, haurrek modalitate ezberdinetan gutxienez alebin kategoriako bigarren urtera arte aritzea ezartzen da, partaidetzako ibilbidearen barnean. Errendimendu ibilbidean hasteko gutxieneko adin gisara 12 urteko muga ezartzen da, honen aurrean klub ezberdinetatik apurka kirol bakarreko “kirol eskola” eskaintza garatzen ari delarik. Hauek ezingo dute txapelketa formatuan lehiatu, apurka bereganatzeko estrategia gisa ulertzen da, honela legearen barnean dagoelarik (03/059/2014 Foru Agindua). Halere, eskaintza honetan parte hartzeko haurrek derrigorra dute eskola kirolean izen emanda egotea, hauen kirol ezberdinen praktika bermatze aldera.

- **“Haur hauekin dauden eragileen gaitasuna eta prestakuntza ziurtatzea”**: Aspektu honekin eskola kirolaren profesionalizazioa azpimarratu nahi da, eragileen arteko harreman egokia bilatzeaz gain. Lehenarekin, eskola kirola kudeatu eta hurrekin egongo direnen formazio ziurtatu nahi da, Eusko Legebiltzarretik hasi eta entrenatzaileetara arte. Entrenatzaileei dagokionez, hiru Lurralde Historikoek ikastaroak abian jarri dituzte, 2014-15 denboraldiko

programan adierazten den bezala (03/059/2014 Foru Agindua). Bertan, haurren ezaugarri nagusiak, kirolen bereganatze prozesua eta garapen integralerako izan beharreko jokabidearen inguruan ikasiko dute. Honela, irakaste kalitatea eta taldearen kudeaketa egokia bilatu nahiko dira ekimen honen bitartez.

Bestalde, eragileen arteko harreman zuzenarekin kudeaketa eraginkorragoaren helburua lortu nahiko da. Maila ezberdinetako eragileen sare komunikatibo zuzena eratuz eskola kirolaren kudeaketa erraztuko bailitzateke.

2.6.3. Funtzioak

Eskola kirolak bi funtzio betetzea du xede Dekretuko 2. artikuluan jasotzen denaren arabera; batetik, nagusiki kirol anitzekoa izanik, eta ez soilik lehiakortasunekoa, haurraren modalitate ezberdinen inguruko ezagutza eta praktika bermatzea. Bestetik, herri-administrazioen bidez eskola kirola ikastetxeetako heziketa proiektuetan eta urteko planetan txertatzea.

2.6.4. Ibilbideak

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kirolaren 125/2008ko Dekretuak bere 3. Artikuluan programek gehienez hiru kirol ibilbide jasoko dituztela zehazten da:

- **Kirolean parte hartzeko ibilbidea.** Helburutzat gazteek kirola eta jarduera fisikoa egitea, kirol modalitate ezberdinen ezagutza, eta kirol ohiturak eta bizimodu osasungarria bereganatzea duen ibilbidea. Honekin, kirola egiten jarraitzeko moduko kirol eskaintza egokia izango dutela bermatu nahi da. Bertan, “hasierako jarduerak”, “lehiaketa aldatuak edo parte hartzaileak”, “aisialdiko jarduerak” eta “kirol eta kultur jarduerak” barneratzen dira. “Lehiaketa aldatuak edo parte hartzaileak” jardueran aritzeko gutxieneko adina benjamineko lehenengoa da, besteetarako benjaminurrekoa (8. art.).
- **Errendimenduari ekiteko ibilbidea.** Helburutzat beren borondatez parte hartu nahi eta horretarako baldintzak betetzen dituzten hurrei

errendimenduan eta kirol helburuetan gora egitea xede duen kirol praktika erraztea duen ibilbidea. Bertan, “hautemate jarduerak”, “teknifikazio jarduerak”, “errendimenduari ekiteko lehiaketak” eta “kirol eta kultur jarduerak” barneratzen dira. “Hautemate jardueretan” parte hartzeko gutxieneko adina kimuen lehen urteari dagokio, gainerakoetarako bigarren urtea izango delarik gutxienekoa.

Lurralde historiko bakoitzaren eskumena izango da errendimenduari ekiteko ibilbideko jardueretan parte hartzeko gehieneko kupoak ezartzea, kirol modalitate eta ibilbideen arteko oreka bilatu nahian. Gehieneko kopurua kimuen bigarren urtean daudenen %20 izango da, eta haurren kategoriako urte bakoitzari dagozkion umeen %25 (ehuneko hauek ezberdin aplikatuko dira mutilen eta nesken kasuan) (9. art.).

- **Kirol talentuak zein promesak hautemateko ibilbidea.** Helburutzat euren gaitasun eta jokamoldeengatik balizko talentu eta promesatzat jo daitezkeen eskola-umeak hautematea, aukeratzea eta garatzea duen ibilbidea. Bertan, “hautemate jarduerak”, “teknifikazio jarduerak”, “lehiaketa murriztuak” eta “kirol eta kultur jarduerak” barneratzen dira. “Hautemate jardueran” parte hartzeko gutxieneko adina kimuen kategoriako lehen urtea da, non behaketa hutsez zein kontrol teknikoaren bidez jardungo den (beste jardueretarako kimuen bigarren adinean kokatuko da gutxienekoa). Gehieneko kupoak egongo dira, modalitate horretako errendimenduko ibilbideko (edo, besterik ezean, parte hartzeko ibilbideko) partaideen %20tik ezingo delarik igaro. Ibilbide honen eta aurrekoaren (errendimenduarena) ehunekoak ez dira metagarriak, baina edozein kasutan ezingo dute osotara kategoriari dagokion guztizko kopuruaren %25a gainditu. Ibilbide honetan sartzeko sistema zein izango den eskola kirolaren Euskal Batzordeak txostenaren osteko programak zehaztuko du.

Aldi berean, kirol ibilbide hauetan ikaskuntza jarduerak, lehiaketakoak, hautematekoak eta bestelakoak eskaini ahalko direla adierazten da.

2.6.5. Kategoriak

125/2008 Dekretuko 4. Artikuluan eskola kirolak bere gain izango dituen kategoria ezberdinak jorratzen dira, honakoak direlarik:

- *Benjaminurrekoak*: programa bukatzen den urtean 7 edo 8 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- *Benjaminak*: programa bukatzen den urtean 9 edo 10 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- *Kimuak*: programa bukatzen den urtean 11 edo 12 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- *Haurrak*: programa bukatzen den urtean 13 edo 14 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- *Kadeteak*: programa bukatzen den urtean 15 edo 16 urte betetzen dituzten eskola-umeak.

2.6.6. Jarduera motak

Eskola kirolaren Dekretuko 7. Artikuluak jarduera mota ezberdinak finkatzen ditu:

- **Ikaskuntza jarduerak.** Lehiaketaz kanpoko kirol prestakuntzarekin lotutako jardueratzat jotzen direnak. Bertan bi mota bereiz ditzakegu: kirol modalitateak irakasteko jarduerak batetik, “hasiera jarduera” izena dutenak; “teknifikazio jarduera” bestetik, errendimendu eta talentuen ibilbideetako eskola-umeen gaitasunaren hobekuntzara bideratutako entrenamendu saioak.
- **Lehiaketa jarduerak.** Honetan ere mota ezberdinetako jarduerak bereiz ditzakegu: “lehiaketa aldatuak edo parte hartzaileak”, eskema hautatzaile hutsetik kanpo egindako lehiaketak direnak; “errendimenduari ekiteko lehiaketak”, errendimendua helburu eta hauetan gora egitea xede duen kirol praktikak barne hartzen dituztenak; eta azkenik, “lehiaketa murriztuak”, euren potentziala dela eta hautatutako gazteek osatzen dutena.
- **Hautemate jarduerak.** Saio bakar batzuek osatuak eta kirol modalitate jakin batean errendimendu ona izateko dohainak dituzten eskola-umeak hautematera bideratuak.

- **Beste jarduera batzuk.**

Kirol eta kultur jarduerak. Kirolen historiarekin eta garapenarekin, olinpiar mugimenduarekin zein eskola kirolarekin loturiko kultura jarduerak.

Aisialdiko jarduerak. Helburua lehiakortasunik gabeko praktika duten jarduerak.

2.6.7. Eskola Kirolaren Euskal Batzordea

Dekretu honek dakarren berrikuntzetako bat da organo honen sorrera eta arautzea. Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak, Eusko Jaurlaritzan kirolaren eskumena duen sailari atxikia dagoenak, 125/2008 Dekretuak definitutako oinarrizko printzipioak bete beharko ditu, baita Autonomia Erkidegoko eskola kirolaren eredu homogeenaren zein lurralde historiko bakoitzeko bereizgarritasunetara egokitutako ereduaren arteko bateragarritasuna zainduko ere. Bateragarritasunaz arduratuko den Batzorde hau hiru lurralde historikoetako foru organoetako kirol zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendariak osatuko dute.

2.6.8. Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua

1995/1996 ikasturtetik ikastetxe, udal, kirol federazioetako eta Kultura, Gazteria eta Kirola Saileko kideez osatua dagoen partaidetza izaerako aholkularitza organoa da (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza, 2016).

2.6.9. Eskumenak

Eskola kirola arautzen duen 125/2008 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio eta eragile ezberdinek eskola kirolaren inguruan dagozkien eskumenak ere zehazten ditu. Honakoak dira orokorretik zehatzenera jotzen badugu:

- Euskal Autonomia Erkidego mailan (Eskola Kirolaren Euskal Batzordea):
 - Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eskumena da eskola kirolaren oinarri eta printzipioak finkatzea.
 - Hiru ibilbideen ezaugarri teknikoak zehaztea, jarduera zein modalitateetan parte hartzeko adina finkatzea, eskola kirolaren

egituren eta eragileen kalitatea bermatzen duten irizpideak adostea edota haurren adinarekiko jardueren ezaugarritze egokirako irizpideen ezarpena besteak beste.

- 22. art.: Bigarren instantzian kirol arloko diziplina ahalmena erabiltzea
- Euskal Autonomia Erkidego eta Lurralde historiko mailan (Kirol Federazioak):
 - 15.5. art.: Eskola kirolaren jardueretan eman beharreko laguntza teknikoaz arduratzea.
 - 15.7. art.: Lehiaketa jardueretan egutegiak zein jardunaldiak prestatzea, arbitrajeak izendatu zein kontrolatzea eta aktak zein sailkapenak egitea.
 - 15.8. art.: Hezkuntza eta talentuak hautemateko programen diseinua eta exekuzioa.
 - 15.9. art.: Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenen exekuzioa (foru aldundiak eskumena igortzekotan).
- Lurralde historiko mailan (Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua):
 - 13 eta 26. art.: Lizentziak eta aseguruak ematea.
 - 3.1. art.: Urtero programa osatu eta onartzea.
 - 3.2. art.: Eskola kirol jarduerak arautuko dituzten joko eta lehiaketa araudiak onartu (Eskola Kirolaren Euskal Batzordearen txostena ikusi ostean).
 - 11.2 eta 11.3. art.: Eskola kiroleko programan jaso gabeko kirol jarduerak antolatzea, baldin eta hauek 125/2008 dekretuarekin bat badatoz (antolatu aurretik arautu beharra).
 - 12. art.: Eskola kirolari buruzko urteko programetan jasotzen ez diren hasiera-unitateetako eta teknifikazio-unitateetako jarduerak baimentzea.
 - 15.5. art.: Kirol federazioekin hauen programetako partaidetza eta kolaborazioa adostea.
 - 15.9. art.: Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenen exekuzioa.
 - 15.10. art.: Kirol federazioek euren eginkizunak ez betetzekotan beste entitateren bat izendatzea.

- 22. art.: Lehen instantzian kirol arloko diziplina ahalmena erabiltzea.
- Udalerri mailan (Udala):
 - 15.4. art.: Ikastetxeen eta kirol klub eta elkarten arteko elkarlana sustatzea jardueren prestakuntzari dagokionean.
 - 15.12. art.: Lurralde historikoetako foru organoek onarturiko programak exekutatzeko.
 - 6. art. (14/1998 Kirol Legea): Kirol-ekipamenduak eraiki, hobetu, mantendu eta erabilerarako ordenantzak egitea.
- Udalerri mailan (Ikastetxea):
 - 15.3 art.: Kiroleko partaidetzaren lehentasunezko esparrua, eta euren esku prestakuntza, antolakuntza eta administrazioa.

Eskumenen finkapenarekin eragile hauetako bakoitzak eskola kirolean duen esku-hartzea eta erantzukizuna zehaztea lortu du 125/2008ko Dekretuak, hau da, bakoitzari dagozkion zeregin eta betebeharrak arautzea.

2.7. Eskola kirolaren egungo egoera Euskal Autonomia Erkidegoan


Behin eskola kirolak Euskal Autonomia Erkidegoan duen araudia eta honen zehaztapenak ikusita, eta aurrez esandakoari berriro helduz, eskola kirola gizarteko gazteenen aktibotasuna sustatzeko tresna izan daiteke. Sustapenerako eta etorkizunean jarraipena emateko aspektu positiboa da eskola kirolaren antolaketarena, bertan 125/2008 Dekretuko 4. artikuluan zehaztutako adin tartetako ikasle guztiei ematen baitzaie parte hartzeko aukera. Partaidetza honek gazteenen jarduera fisiko eta kirol ohiturekin nolabaiteko lotura izan dezakeenez hau nola egituratua dagoen aztertu beharko da, bilakaera nolakoa den identifikatzeko.

Lehen pauso honetarako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietatik eskuratutako 2014-2015 denboraldiko partaidetza modu ezberdinetan aztertuko da, hiru lurraldeetan bizi den errealitatea kokatzeko asmoz.

Datu hauek eskola kirolaren gutzizko balioak hartzen ditu bere gain, hots, ibilbide guztiak. Zentzu honetan esan beharra dago aurrebenjaminen kategorian ez dela aztertu Gipuzkoako Lurraldean ez delako halakorik eta hiru lurraldeetako analisia egiteko ezintasuna legokeelako. Honez gain ere, aipatu behar da federatuak partaidetzat har daitezkeenetik at daudela, Gipuzkoaren kasuan bederen (lanean zehar gehien sakondu den lurraldea). Bertako federazioek fitxen ardura har dezaketen arren, gazte horiek gehienetan eskola kiroleko errendimenduko ibilbideko parte izaten dira, kirolari federatutzat jotzen ez direnak.

1. Taula: 2014-2015 denboraldian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan matrikulatutako haur eta gazteek eskola kirolean izandako partaidetza-tasa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)

	Benjamin	Kimu	Haur	Kadete	GUZTIRA
ARABA	55,4%	64,5%	50,9%	23,5%	49,1%
BIZKAIA	51,3%	59,0%	52,9%	12,0%	44,5%
GIPUZKOA	70,8%	75,2%	47,2%	19,8%	54,5%



1. Grafikoa: 2014-2015 denboraldian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan matrikulatutako haur eta gazteek eskola kirolean izandako partaidetza-tasa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)

Lehenik eta behin, goiko taula eta grafikoak ikusirik bi ondorio nagusi atera ditzakegu: Lurralde bakoitzean partaidetza-tasa ezberdintasun nabariak daudela batetik, eta eskola kirolaren partaidetzak, maila ezberdinean bada ere, hiruretan tendentzia lerro berbera jarraitzen duela bestetik.

Lehenari dagokionez, ezberdintasun hauek bereziki benjamin eta kimuetan antzeman daitezke, Gipuzkoaren kasuan partaidetza altua izanik. Benjaminen kasuan, Araban zein Bizkaian ikasleen erdiak baino zerbait gehiagok burutzen du eskolaz kanpoko orduetan eskola kirolaren eskaintzako jarduera fisikoren bat (%55,4 eta %51,3 hurrenez hurren). Gipuzkoaren kasuan partaidetzak gora egiten du ikasle matrikulatuen bi herenek baino gehiagok (%70,8) jarduten dutelarik. Kimuetan ere ezberdintasunak nabariak dira, benjaminetan bezalaxe lurraldeen partaidetzaren hurrenkera berdina da, baxuena Bizkaian dago, %59arekin, gero Araban, ia hirutik bik parte hartzen duelarik (%64,5), eta azkenik, Gipuzkoan, non partaidetza ikasleen hiru laurdenekoa izatera igarotzen den (%75,2). Azken datu honetan aurrez aipaturiko "kirol eskola" horietan parte hartzeko eskola kirolean izen emanda egon beharrak zerikusia izan dezake, eskakizun hau lurraldeko eskola kiroleko programan jasotzen baita (03/059/2014 Foru Agindua).

Bestetik, haur kategorian Bizkaia da kimuekiko partaidetza gehien mantentzea lortzen duena, %59tik %52,9ra jaisten baita soilik. Araba eta Gipuzkoaren kasuetan, eta azken honetan batik bat, parte hartze tasa dezente jaisten da, lehenaren kasuan ia bi herenek burutzetik ikasleen erdira igarotzen da (%64,5etik %50,9ra). Gipuzkoarenean berriz, hiru laurdenak parte hartzetik ikasleen erdiek ere ez parte hartzera igarotzen da, hau da, %75,2tik %47,2ra.


Kimuetatik haurretarako pauso horretako beherakada are nabariagoa da haurretatik kadeteetarako hiru lurralde historikoetan. Arabaren kasuan kadeteen partaidetza-tasa haurren erdira murriztera pasatzen da, hots, %50,9kotik %23,5kora. Bizkaiaren kasuan are nabarmenagoa da beherakada, bertako kadeteen partaidetza haurren laurdena baino gutxiago izatera igarotzen baita (%52,9tik %12ra). Gipuzkoari dagokionez ere beherakada da nagusi, haur kategorian %47,2ko partaidetza izatetik kadeteetan %19,8koa izatera igaro baita.

Bigarren ondorioari dagokionez, ehuneko ezberdinetan bada ere, grafikoa begiratzuz gero bistakoa da hiru lurralde historikoetan benjaminetatik kimurako pausoan areagotu egiten dela hurrek eskola kirolarekiko duten partaidetza. Une honetatik aurrera partaidetzaren beherakada hasten da, bereziki haurretatik kadeteetarako jauzia aipagarria izanik.

2. Taula: EAEko 2014-15 denboraldiko partaidetza-tasak: kategoria eta generoaren arabera (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)

EAEko PARTAIDETZA-TASA							
Benjamin		Kimu		Haur		Kadete	
58,7%		65,4%		50,6%		16,4%	
Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
37,0%	63,0%	38,9%	61,1%	38,7%	61,3%	51,6%	48,4%

Taula honetan aurrez lurraldeka bereizita adierazitakoa batua adierazten da, lurralde bakoitzeko datu izatetik EAEkoa osatzera igaroz alegia. Ondorengo bi grafikoetan taulakoa modu grafikoan azalduko da.



2. Grafikoa: 2014-2015 denboraldian EAEn matrikulatutako haur eta gazteek eskola kirolean izandako partaidetza-tasa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)


Euskal Autonomia Erkidegoko benjamin-kadete bitarteko haur eta gazteen %48,7ak batuz beste hartu zuen parte Foru Aldundietatik egindako eskola kirolaren programetan. Beste modu batera esanda, eskola kirolean parte hartzen dutenen kopurua ez zela iritsi EAEn matrikulatuak zeuden adin horretako ikasle guztien erdira.

Grafiko honetan ere, aurrekoaren batuz bestekoena izaki, nabaria da partaidetzak jasaten duen bilakaera:

- Benjamineetatik kimuetarako aldia: Partaideen kopuruak gora egiten du, *benjamineetan* %58,7a izatetik *kimuetan* %65,4a izatera.
- Kimuetatik haurretarako aldia: Garai honetan ikus daiteke hasten dela partaideen kopuruaren gainbehera hasten da ikusten, aurreko balioa %50,6raino jaisten baita. Hots, lehen hezkuntzako azken zikloan matrikulatuak dauden hiru ikasleko ia bik parte-hartzetik bigarren hezkuntzako lehen zikloko bi ikasletik batera igaro zela aurreko denboraldian.
- Haurretatik kadeteetarako aldia: Aldi edo etapa hau da gainbehera handiena pairatu duena, %16,4ra jaisten baita partaidetza.

Datu hauek aztertzerakoan kontuan izan behar da federatzen diren haur eta gazteak datu hauetatik kanpo geratzen direla, eskola kirol garaian egon arren ez direla halakotzat kontuan hartzen.


Hau zehaztuta, kategoriaka bereizitako grafiko hauek adierazten dutena zehaztasun gehiagoz aztertu eta partaidetzaren errealitatea hobe irudikatzeko generoaren aldagaia ere izan behar da kontuan. Generoa kontuan izanez aurrez aipaturiko datuak mutil eta nesken artean zein proportziotan banatzen ote den aztertzeke aukera emango digu.



3. Grafikoa: 2014-2015 denboraldian Euskal Autonomia Erkidegoan eskola kirolean parte hartu dutenen generoaren araberako bereizketa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)


Aurreko grafikoek lurralde zein autonomia erkidego mailako haur eta gazteen parte hartzearen kategoriakako sailkapena adierazi digute, batz bestea %48,7koa izanik. Goiko grafiko honi esker, kategoria bakoitza generoari dagokionez nola osatua dagoen ikus daiteke, aurrez aipaturiko partaidetza-tasak neska zein mutiletan berdin banatzen ote diren jakitea ahalbidetuz.

Datuek adierazten dutenaren arabera, eskola kiroleko partaidetzan mutilen presentzia da nagusi neskenaren aldean, benjaminen %37, kimuen %38,9 eta haurren %38,7 baitira partaide guztietatik neskak. Kadeteen kategoria da nesken kopurua mutilenenaren gainetik agertzen dena, oso orekatua dagoen arren (%51,6 neskak baitira eta %48,4 mutiak).



4. Grafikoa: 2014-2015 denboraldian Euskal Autonomia Erkidegoan eskola kiroleko partaideen generoaren araberako bereizketa (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)

Laburtuz, eta batz bestekoari so eginez, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kiroleko partaideen %60,8 mutilak dira eta %39,2 neskek. Egoera honi EAEko partaidetza ikasleen erdira ez iristearena (%48,7) gehituz, nesken gehiengoak eskola kirolean ez duela hartzen parte ondoriozta daiteke. Halere, kontuan izan behar da eskola kirola kirol jardueren adierazle izan daitekeen arren ez dela eskaintza aukera bakarra haur eta gazteentzat. Hemendik at baditugu beste aukera batzuk, hala nola, euskal dantza taldeak edota federatzearen aukera, beti ere nor bere kabuz egin dezakeen jardura fisikoaz gain.



5. Grafikoa: 2014-2015 denboraldian hiru lurraldeetako partaideak generoaren arabera bereizita (Iturria: Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak) (neuk landua)

Hiru lurraldeei dagokienez, proportzio ezberdinean bada ere, hiruretan errepikatzen den egoera da, guztietan nesken partaidetza baxuagoa baita mutilekiko. Arabako eskola kirolaren partaidetzaren kasuan %39a osatzen dute neskek, Bizkaikoan %35,2a eta Gipuzkoakoan %44,2a.

Honekin guztiarekin, autonomia erkidegoko eskolaz kanpoko ekintza eta ohitura aktiboak sustatzearen beharra ondoriozta daiteke, bertan nesken kasuak aipamen berezia beharko duelarik.

2.8. Nesken jarduera fisiko eta kirol ohiturak

XXI. mendeko gizartean ohitura aktiboak sustatzearen beharra aurrez aipaturiko plan eta programen existentziek baieztatzen digute. Sustapeneko plan hauekin batera, ugariak eta anitzak (ikuspegi ezberdinetik landuak) dira jarduera fisiko eta kirola egitearen zein honen gainbehera edota uztearen inguruko ikerketa eta artikuluak, hala nola, Arruza eta lank., 2002; De Hoyo eta Sañudo, 2007; Gil, Cuevas, Contreras, eta Díaz, 2012; Isorna, Ruiz, eta Rial, 2013; Piéron eta Ruiz-Juan, 2013; Ponce De León, Valdemoros, eta Sanz, 2010; Viñas eta Pérez, 2011. Hauek guztiek errealitatearen azalpena bilatu nahi izan dute, egoera ulertu eta irtenbide eman nahian. Aldi berean, bereziki neska eta emakumeen arlotik ere aztertu izan da egoera hau, honen adibide izanik Azurmendi, 2011; EMAKUNDE: Emakumearen Euskal Erakundea, 2012; Kultura Saila, 2003; Manrique eta Rojo, 2002; Vizcarra eta lank., 2009, eskola kiroleko partaidetzaren kasuan ikusi bezala mutilekiko egoera okerragoan baitaude (4. Grafikoan ikus daitezkeen gisan).

Ikerketa edo artikulu hauen egileen artean ikerlari internazional, estatu mailako zein euskaldunak topa daitezke, praktikaren gainbehera (eta bereziki neskena) orokortua dagoen gaia denaren adierazle. Lagin gisara euskal populazioa dutenei erreparatuz, gure eremuko egoera hobekien hauteman dezaketenei, ondorengo lerroetan ikus daitezkeen kausa edo aspektuak hauteman dituzte:

2.8.1. Eragin faktoreak nesken kirolean

Gazteak orokorrean, eta neskak bereziki, jarduera fisikoaren sustapen edo baldintzatze faktore nagusitzat gurasoen rola (kasuen %93) hauteman dute González eta Oterok (2005). urtean eginiko ikerketan. Bertan, neska gazteen praktikan lagun dezaketen animo eta laguntzan duten erantzukizuna handia dela diote (González eta Otero, 2005). Harreman zuzena ikusten da nesken jarduera fisikoko partaidetza eta gurasoenen artean, egunerokotasunean kirolrik egiten ez dutenen alabak inaktibotasun tasa altuagoak baitituzte. Alor honetan bereziki amaren papera da garrantzitsu, hauen atxikipena oso baxua izateak lotura baitu alaben partaidetza baxuagoan. Gurasoen ia osotasunak euren alabentzako kirol praktika garrantzitsutzat eta onuragarritzat jo dute, eta are balorazio positiboagoa egiten dute egunerokotasunean jarduten duten gurasoek. Honekin ere bat egiten dute Piéron eta Ruiz-Juan-ek (2013), familiaren eragina aztertzerakoan familiako kideek jarduera fisiko eta kirolarekiko duten jarreratik eratorritako laguntzak edo laguntza ezak eragina izango duela esanez, baita inguru familiarrek ahalbidetutako ereduak ere (hau bera diote 2002an *Itxaso* Proiektuan, Gipuzkoako 12-18 urte bitarteko nesken praktika uztearen inguruko ikerketan, elkarrizketatutako guraso batzuek).

Kirol praktikaren garrantziaren ikuspegia ere Vizcarra eta lank.-en (2009) liburuan ikus daiteke, gurasoek neskei ahalegintzeko eskatzen dietela ondorioztatzen baitute. Halere, gurasoengan eragiten duen nolabaiteko estereotipoa dagoela diote, batetik ahalegin hori ez dagoelako mutiletan bezala kirol emaitzetara bideratua, presio aldetik neskentzako positiboa izan daitekeena (hainbat mutili horrek presioa sortzen baitie), eta bestetik emaitza akademiko eta kirol emaitzaren artean hautatu behar den kasuetan lehenaren aldeko apustua egiteko dagoen joera dela eta.

Lehenaren aipamena jasotzen da *Itxaso* Proiektuan (2002), non guraso batzuek, ez denek, familian tratu ezberdina aitortzen duten, mutilei beti kirola praktikatzera bultzatuz eta neskei soilik oso onak diren kasuetan. Honek presioa ken diezaieke neskei, gogoko ez dutena eta urteak pasa ahala areagotzen doan aspektua dela adierazten dutena (Manrique eta Rojo, 2002).

Bigarrenari helduz, emaitza akademiko eta ikasketei, gurasoek lehentasuna ematen dien bezala 12-18 urte bitarteko neska gipuzkoarrek lehen uzte arrazoitzat “ikasteko denbora falta” (hala dio ere De Hoyo eta Sañudok (2007)) jotzen dute, baina, gehienetan ikasketetan larri ibili aurretik uzten dutela azpimarratzen da (Manrique eta Rojo, 2002). Ikasteko denbora falta honetan eskolaz kanpoko jarduera ezberdinek euren eragina dute, hala nola, ingelesa, musika, dantza etab. (Manrique eta Rojo, 2002; Vizcarra eta lank., 2009), euren etorkizunerako baliagarriagoa irizten diotenari lehentasuna eskaintzen baitiote. Hortaz, denbora falta baino hautaketa estrategikoa da jarduera fisikoa eta kirola bigarren maila batera kokatzera bideratzen duena (aurrez esan bezala familia eta ingurukoengandik jasotako eredu eta bizipenek lehentasun horretan eragin dezaketelarik) (Manrique eta Rojo, 2002).

Hautaketa estrategiko honetan gertatzen den kirolaren bazterketan hainbat dira kirolak gauza baliotsu askorik ematen ez diotela uste dutenak, eta hau are nabariagoa da gustuko duten kirolean jarduten ez badira, batetik eskola kirolaren eskaintza mugatua dagoela diotelako edota ez direlako egongo euren lagun taldearekin bestetik (Manrique eta Rojo, 2002).

Eskaintzaren kasuan, 2014-2015 denboraldiko Gipuzkoako eskola kiroleko adineko lizentziadunek 49 kirol modalitate ezberdinetan hartu dute parte, eta 2015-2016ean 47tan (kontuan izan behar da hasierako eskaintza hautatutakoak baino zabalagoa izan daitekeela nahiz gero jendeak hautatu ez, hortaz gutxieneko eskaintza modalitate kopuru honetakoa da) (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia). Kirol ezberdinetan jarduteko aukera egon arren, eskaintza gizonezkoen eredura bideratua dagoela diote hainbat eskola kiroleko koordinatzailek, eta hortik eratorri mutilak txikitatik hasteko ohitura eta neskak beranduago. Honekin, adin bereko genero arteko ezberdintasunak areagotuz joango dira eta ez dira emaitza parekagarriak lortuko (Manrique eta Rojo, 2002).

Kirolek berezkoa duten ezaugarria da lehiarena, eta honen aurrean generoaren arabera jarrera ezberdinak ageri dira (baita genero bakoitzaren barnean ere). Bizkaian egindako ikerketa batean gazteek ondorioztatzen dute mutilek gogoko dutela lehiatzea eta neskek ez dutela hain gogoko, batetik

mutilek bazterten dituztelako (baloia ez pasaz kasu) eta protagonismoaz jabetu nahi direlako bestetik. Aspektu hauek ez baleude bertako neskek positibotzat jotzen dute lehia bakoitzaren mugak ezagutzeko modutzat (Vizcarra eta lank., 2009).

Lehiak berarekin irabazteko nahia dakar normalean eta 2002ko ikerketan parte hartutako neskek ez datoz bat filosofia horrekin, hainbatek entrenamenduak gustuko baitituzte baino ez partidak (baita goiz jaiki edota aisi denbora kentzen duelako). Garaipenari ez diote garrantzirik ematen, euren kirolarekiko gozamenaren ikuspegian ez baitio ardura irabazi edo galtzeak. Gainera, irabazteko nahitik taldean presioak ager daitezke, gustuko ez duten beste alderdietako bat. Adinean aurrera egin ahala areagotzen doan zerbait da presioarena, partaidetzan negatiboki eragin dezakeelarik (Manrique eta Rojo, 2002). Egoera honen aurrean herri ezberdinek neurriak hartu dituzte; hala nola, benjaminen kasuan partidako golak kontuan izan beharrean laurdenkako emaitzak biltzea, beti ere txapelketa sistema gabe edota multikirola/multiekintza bezalako eskaintzen sorrera, non txapelketa gabe kirol ezberdinetan jardunez ezohikoagoak diren horiek ikasten diren.

Kirol anitzen barruan, Bizkaiaren kasuan ere, jarduera proposamen berri bat diseinatu eta abiatu zen 2011. urtean: "Heziki". Hau, aurrebenjaminetan dagoen jarduera berria da non bertako entrenatzaileei kirol anitzeko prestakuntza-programa errazteko lan-tresna ahalbidetzen dieten. Jarduera bera hiru zatietako bakoitzean modu ezberdinean jardun beharreko (eskuz lehen bietan eta hankaz hirugarrenean) eta neska-mutilez osaturiko kirola da, helburu gisa atean lau zulo dituen oihalean baloia sartzea izanik. Lehiari dagokionez, aurrez adierazitako laurdenkako emaitza sistemarekin puntuatuko da, baina bereizgarri gisa jaurtiketa burutu ahal izateko taldekide guztien pasea derrigorra izanik (De Maria, Llosa, Sergio, eta Calleja, 2014).

Lagun taldearekin ez egotearen kasuan berriz, uztera bidera dezakete lagunek kirolik egin ez zein utzi izanak edota federatu eta beste talde batera joateak (hedatua dago federatuetarako urratsa "onak" direnek egiten dutelakoaren ustea, hau izan daitekeelarik lagun honi ez jarraitzeko arrazoietako bat). Azken batean kirolak ahalbidetzen duen sozializazioari eta

harremani garrantzi handia ematen diete neskek; taldeko giro ona, lagun berriak egitea edota entrenatzaileak eurek ulertzea baloraturaz. Are gehiago, bizipen txarren inguruan galdetuta entrenatzailearen oihu zein taldeko giro txarra azaleratzen dituzte. Alor honetan eskumena eta esku-hartzea (jokalarien jarreraz gain) entrenatzailearena da eta koordinatzaileen iritziz arazoak daude entrenatzaileak aurkitzeko, honek dakarren eskakizunen jaisteak duen eraginarekin (Manrique eta Rojo, 2002).

Bizipen txarrek, hala nola entrenatzailearen oihu zein taldeko giro txarrak, nesken ondo pasatze eta gozamenaren eragiten dute. Hau da, kirolek gogoko duten alderdietako bat, gozamenarena, lagunekin egon eta lagun berriak egitearenarekin batera (Vizcarra eta lank., 2009). Gozamenak eta jarduteak sorturiko bizipen onek hauek errepikatu nahia dakarte, motibazioa sortuko diona jardulari eta honek jarduerarekiko atxikimendu eta jarraikortasuna (Thurston eta Green, 2004).

Hauetz gain, komunikabideek neska gazteetan izan dezaketen garrantzia aipatzekoa da. Neskek diote hedapen gutxiago duela euren kirolak komunikabideetan, honek neskek jasotako jarreretan eragina izanik (Vizcarra eta lank., 2009). Informazioaren hautaketak eta hau igortzeko moduak ikusle zein irakurleengan eragiten du. Kirol alorreko informazioa gehien bat gizonenera mugatzen da, honekin estereotipoak eta rolak indartzen direlarik (López, 2011). Komunikabideetan kirol tartetan nesken aipamen edo denbora gutxi (edo ezer ere ez) eskaintzeak neska gazteengan eragin dezake, sustapenaldian batik bat, ez dutelako identifikatuak senti daitezkeen gizarte eredu hurbilik ikusten.

Bertako gazteekin egindako lanetatik jasotako kausez gain, gorputz hezkuntzako ikasgaiarena ere aipatzekoa da. Bertan, irakasleak sustatzaile gisa izan dezakeen rolak, bere jarrera-jokabideak zein baliatutako metodologiak eragin dezaketelarik. Gazteei heziketa fisikoko saioak dibertigarri egiteak, ostean aipatu bezala, edota ikasgai honetako saioak jarduera fisikoaren praktikan murgiltzeko baliagarri izan dituelakoaren usteak eragina dute jarduera fisiko eta kirol egoeran, dagoen ezberdintasun adierazgarria ahula izan arren. Hau da, heziketa fisikoko saioak dibertigarri izateak lagundu egiten diela neskei

euren denbora libreko praktika egiterakoan. Maila berean gertatzen da nesken kasuan kirol praktikaren egoera eta denbora libreko jarduera fisiko zein kirolera hurbilketan heziketa fisikoko irakasleek eginiko laguntzaren artean (Ponce De León eta lank., 2010). Honen harira ere, ikerketa honek berak adierazten du heziketa fisikoko saioak aisiako kirol praktikarako hurbilpenean lagundu ez dietela aitortzen duten nesken lagungarri izan dutela uste dutenek baino bi aldiz aukera gehiago dutela praktika hauek uzteko.

Azkenik, Moreno-k (2014) bere lanean gazteen kirol praktikan eragin dezaketen faktoreak identifikatu dituzten autore lanen, ikerketa zein inkesta ezberdinen analisia egiten du. Bertan, aztertutako 21 autoreren lanak azertu eta bateragarritasun taula batean alderaketa adieraziz bat datozen aldagaiak identifikatzen ditu. Honela, faktore bera aipatzen duten autoreak batuz aipatuenetatik gutxienera zerrendatzen ditu, ondorengo faktoreak izanik aipatuena: interesen gatazka (12 autoreren aipamena), denbora falta (9), gozamen falta (8), talde/entrenatzaile gatazka (8), lesioak (7), gehiegizko lehiakortasun izaera (7), ...

Gazteei eginiko 21 inkesta ezberdinen analisiarekin ere prozesu bera burutu eta denbora falta (15 inkestetan aipamena), nagikeria eta gogo falta (8), lesioak (7), talde/kide/irakasleekin gatazka (7), interesen gatazka (7), ikasketen exijentzia (7), ...

Iturri guztien, 45 hain zuzen, bateratzean denbora falta (24), interesen gatazka (19), entrenatzaile/talde/kideekin gatazka (17), ikasketa eta lanaren exigentziaren gorakada (15), lesioak (14), aspertzea/gozamen falta (14), gehiegizko lehiakortasun izaera (13), ... hauteman ditu Moreno-k (2014).

Honekin, kirol praktikaren uztean eragiten duten faktoreen inguruko lan, ikerketa zein inkesta ezberdinen arteko lotura ikus daiteke, faktoreak, orden ezberdinean bada ere, antzekotasuna adierazten baitute. Faktore hauen eta euskal gizarteko neskei eginiko ikerketetatik jasotako artean harremana ikus daiteke baten bat falta bada ere (gurasoen zerikusia kasu).

3. IKERKETAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA

Alor honetan, lehenik eta behin ikerketaren helburuak eta abiapuntuko galderak zehaztuko dira. Ostean, hauetara heltzeko erabilitako diseinua eta baliabideak adierazi, eta azkenik ikerketako partaide zein datuen eskuratzeko prozedura.

3.1. Ikerketaren helburuak

Ikerketa honekin lortu nahi diren helburuak maila ezberdinean sailka daitezke: helburu orokor zein espezifikoak.

3.1.1. Helburu orokorrak

- Euskal Autonomia Erkidegoko, eta Gipuzkoakoa sakonago, eskola kiroleko partaide kopuru, banaketa eta bilakaera aztertzea.
- Nesken eskola kirolean parte hartzean eragina izan dezaketen aldagai ezberdinak identifikatzea eta hauen arteko harreman edo loturak egitea.
- Nesken hautematek landutako aldagaietatik bermatu beharreko eta aldatu beharreko esparruak identifikatzea, ostean proposamen edo estrategiak diseinatzeko.
- Neskei eskola kirolak ekarpenik egin ote dien eta zein zentzutan ezagutzea.

3.1.2. Helburu espezifikoak

- Nesken ikuspegitik eskaintza formatuak zer nolako eragina izan dezakeen eta honetatik garrantzia zeri eman diezaioketen jakitea.
- Nesken bizipenetan harremanek partaidetzarekiko izan dezaketen rola hautematea.
- Nesken hautematek abiatuz eskolaz kanpoko jarduera eta zereginek partaidetzan izan dezaketen zerikusiarren berri izatea.
- Neskek igarotako egoeratik eskolak eskola kirolarekiko duen jarrera edo jokabidea ezagutzea.

3.2. Ikerketaren diseinua

Finkatutako helburuetara heltzeko ikerketa interpretatibo eta deskriptiboa baliatu da, ikerketako partaideek ahalbidetutako informazioa aztertu eta honen interpretazioan oinarritzen denaz alegia. Honetarako, focus group teknika baliatu da, taldekako elkarrizketan oinarritzen den aurreko mendeko 30. hamarkadan sorturiko ikerketa soziologikoetarako arakatze teknika kualitatiboa (Juan eta Roussos, 2010). Teknika kualitatiboak egin ditzakeen ekarpenez gain, berezitasun bat dauka, “egunerokotasuneko arrotz bilakatze” aukera. Beste modu batera esanda, errealitatean ohikotzat jotzen diren alderdi ezberdinak aztertu eta hauei arreta jartzean jaso daitezkeen informazioa lortzeko aukera ematen duela, egoera ulertzeko gakoak topa daitezkeelarik.

3.3. Informazioa eskuratzeko tresna

Focus group-a moderatzaile batek kudeaturiko mahai-inguruan oinarritzeak, bertan erabilitako galdeketa gidoia egiten du aztertu beharreko informazioa eskuratzeko tresna, moderatzailearen gaitasunarekin batera. Honen diseinurako nesken eskola kirolaren uztean eragin dezaketen aldagai ezberdinak izan dira kontuan, diseinatutako dimentsio ezberdinetan kokatuz. Honela, testuinguruan jartzea (hasieran) eta amaierako galderez gain (hausnarketa gisara) lau dimentsio nagusi bereizi dira: Eskaintza, Beste Zereginak, Harremanak eta Eskola.

Teknika honetan hiru urrats bereizten dira (Juan eta Roussos, 2010):

- Erreklutatzea: Subjektuak ondo zehaztearen garrantzia hemen esango dena, jasoko den informazioa alegia, ahalik eta egokiena izan dadin.
- Moderazioa: Elkarrizketaren kudeaketari dagokio; moderatzailearen gaitasuna elkarrizketatuen giro ona lortu (eztabaida ahalbidetuz) eta informazio egokiena lortzeko ezinbestekoa da, baita espazioaren garrantzia ere.
- Informearen (txostenaren) osaketa: Konplexua da, aldagai ugari sintetizatzen baitira modu laburrean. Behatutako tendentzia

orokorrak jasotzeaz gain iritzi isolatuak ere jaso behar dira honetan.

Hau baliatzearen arrazoia nesken egoera ulertzeko ahalbidetzen duen bat-bateko elkarrizketa edo eztabaida egoera izan da. Giro egokian zein euren adineko beste kideen presentzian kontakizunen sakontasuna lortzeko hautatu da, errealitatearen aipamena ahalik eta gutxien baldintzatu nahian.


3.4. Partaideak: Ikerketako subjektuak

3.4.1. Partaideen ezaugarriak

Focus group honetako partaideak lehen hezkuntzako bi eta hirugarren zikloetan (kimuetan) eskola kirolean jardun eta utzi zein beste kirol batera igaro diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 1 eta 2. mailako neskak izan dira, guztira bost hain zuzen. Hauetatik lau bigarren mailako ikasleak dira eta bosgarrena lehen mailakoa (5. Partaideak; “4. Focus grouparen analisi” zein “10.1. Eranskinean” ikus daitekeen bezala).

3.4.2. Partaideen testuingurua

Focus grouperako partaideen taldea osatzeko neskak eta adin hau hautatu izana ulertarazi eta neska hauek bizi diren errealitatearen testuingurua azaltzeko, generoaren araberako Gipuzkoako eskola kiroleko azken hamar denboraldietako partaidetzaren analisi dokumentala burutu da *KirolBegiren* web orri (KirolBegi: Gipuzkoako kirol-behatokia, 2016) zein Gipuzkoako Foru Aldundiko eskola kirolaren arduradunei esker zuzenean eskuratutako datuetatik abiatuz.




6. Grafikoa: 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko generoaren arabeko partaidetza-tasa Gipuzkoan (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta KirolBegi:Gipuzkoako kirol-behatokia, 2016) (neuk landua)

Grafiko honetan azken hamar denboraldietan benjamin-kadete bitarteko jarduleak eta sexu bakoitza kontuan izanik bietako bakoitzean egon den partaidetza-tasa adierazten da. Honen arabera, azken hamarkadako denboraldi guztietan nesken partaidetza mutilena baino baxuagoa izan delarik. Hamarkadako batz bestekoari dagokionez, nesken partaidetza %46,3koa izan da eta %55,2koa mutilena.

Denboraldika aztertuz gero, 2011-12tik aurrera gorakada antzematen da bi sexuetan, ordura arteko tendentzian igoera nabaria baitago. 2010-11 denboraldian nesken %39,5ak parte hartzetik 2011-12an %52,7ra igaro zen, eta mutilen kasuan %47,8tik %63,8ra (hamarkada guztiko balio altuena). Une honetatik aurrera ehunekoek apur bat behera egin arren, aurreko denboraldietan baino partaidetza-tasa altuagoa da. Hau da, 2005-06/2010-11 bitarte nesketan partaidetza batz beste %43,8an egotetik, 2011-12/2014-15 bitarte %50era igaro zen batz bestekoa, eta mutilen kasuan ere lehen erdiko partaidetzak gora egin zuen bigarreanean, %52,1koa izatetik %59,9ra hain zuzen.

Aurrez ikusi bezala, hiru lurretan partaidetzaren beherakada kimu alditik hurrenera bitarteko pausoa hasten da, eta ostean hurretik kadeteetara. Nesken egoerari dagokionez eta ikerketaren esparrura gerturatuz,

azken hamarkadan kategorია batetik besterako jautzian egon den bilakaera zehatzago aztertuko da, jaitsiera denboraldiz denboraldi sistematikoki errepikatzen ote den behatzeko asmoz.




7. Grafikoa: 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko kimutik haurretarako igaroaren bilakaera neska Gipuzkoarretan (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta KirolBegi:Gipuzkoako kirol-behatokia, 2016) (neuk landua)

Grafikoa aztertzerakoan argi ikus daiteke partaidetzak beherakada modu jarraituan jasaten duela kategorია batetik bestera igarotzerakoan. Hamarkadako batz bestekoa eginez, neska kimuetako %67,5eko partaidetza %38,4ra igarotzen da haurren kategoriarako, hots, ia 30 puntuko beherakada. Hamarkada honetako lehen erdian are handiagoa da ezberdintasuna edota gainbehera 2005-06/2010-11ko balioei so eginez gero Gipuzkoako neska kimuen %66,8a partaide izatetik haurren %33ra igarotzen baita, 33 puntu murriztuz eta partaidetza-tasaren erdira. Azken lau denboraldietan egoerak aurrekoekiko apur bat hobera egin arren, 22 puntuko beherakada antzeman daiteke batetik bestera (%68,5etik %46,5era).

Gipuzkoako testuingurutik gehiago zehaztu eta egoera hobeko kokatzeko, focus groupeko partaideak Gipuzkoa barnealdean kokatua dagoen 5.800 biztanle inguruko herri industriadun batekoak direla aipatu behar da. Eginiko analisi dokumentaletik lortutako balioetatik herrian bertako eskola kirolak adin eta sexu honetan izandako azken denboraldietako partaidetza-tasak


adierazgarri dira subjektuen errealitatea ulertarazteko. Hau dela eta, azken hamar denboraldietako datuei so eginez gero honakoa ikus daiteke:



8. Grafikoa. 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko generoaren arabera partaidetza-tasa herrian (Iturria: Herriko eskola kiroleko koordinatzailea) (neuk landua)

Gipuzkoako kasuan bezala herriko nesken partaidetza mutilenen azpitik kokatzen da, hori bai, Gipuzkoako datuekiko bi sexuen arteko ezberdintasun handiagoak direlarik. Zentzu honetan ere nesketan %18,6ko partaidetza izan da azken hamarkadan batz bestea eta %42,4koa mutiletan (Gipuzkoako datuekiko ia 28 puntu gutxiago nesketan eta 13 mutiletan). Herriko partaidetza-tasa aztertzerakoan (nesken kasuan batik bat) agian kontuan izan behar da herrian bertan euskal lurretan oihartzuna duen dantza taldea egoteak, partaidetza-tasan eragina edo zerikusia izan baitezake, ariketa fisikoaren beste eskaintza den aldetik (13-15 urte bitarteko 70 gaztetxo izanik eta orotara 3-15 urte bitarteko 220, Oinkari Dantza Taldea, 2016).

Gipuzkoako kasuan aztertu bezala herriko kimutik haurretarako pausoan beha daiteke ondorengo grafikoa.



9. Grafikoa. 2005-06 denboralditik 2014-2015ra bitarteko kimutik haurretarako igaroaren bilakaera herriko nesketan (Iturria: Herriko eskola kiroleko koordinatzailea) (neuk landua)

Grafiko honetan herriko nesken partaidetza-tasak kimutik haurrerako pausoan Gipuzkoako tendentzia jarraitzen duela ikus daiteke, orokorrean behera egiten baitu (salbuespenen bat dagoen arren).

3.4.3. Partaideen hautaketaren justifikazioa

Hautaketa zehatz adierazten hasi aurretik, neskek berak hautatzearen zergatia adieraztea garrantzitsua da. Errealitate baten berri izan nahi denean egokiena zuzenean horretara jotzea izan daitekeela kontuan izanik, nesken errealitatea ezagutzeko euren kolaborazioa bilatu nahi izan da. Adin honetako haur eta gazteei ez zaie askotan hitza ematen, eta lan honen bitartez ere eurei hitza eman ez euren errealitatearen irudikapena bilatu nahi izan da. Honen helburua euren bizipenetatik abiatuz eskola kiroleko garaian bizitakoa lehen pertsonan eta sentitu gisan (adibide eta zehaztasunekin) mahai gainean jartzea izan da, bertatik aspektu adierazgarriak izan daitezkeenak identifikatu eta kontuan izan beharreko zein hobekuntza proposamenak egiteko baliatzeko.

Hau esanda, behin guztia azterturik eta aurreko orrietan landu bezala, 2014-2015 denboraldian eskola kirolean EAEko ikasleen ia erdian partaidetza (%48,7a) adierazten da (aldagai ezberdinak kontuan izanik aztertuz). Gehiago zehaztuz eta Gipuzkoaren kasua sakonago aztertzeraz joanaz, azken hamarkadako partaidetza-tasan mutil zein nesken arteko ezberdintasunak ere nabariak izan dira, bien artean nesken partaidetza baxuagoa delarik. Egoera honen aurrean nesken egoeran zentratu eta gainbehera aldia identifikaturik (bi sexuetan eta hiru lurraldeetan jarraitzen den tendentzia bera) egoera honetan zerikusia izan dezaketen aspektu edo alderdien hautematea izango da ardatz nagusia, urtetan zehar eta lurralde ezberdinetan errepikatzen den egoera aztertzeko asmoz.

Honetarako, ezaugarri horiek betetzen dituzten gazteez baliatu da, hau da, kimu aldian (kasu honetan baita benjaminetan ere) eskola kirolean aritu baina haur kategoriarako uztera jo duen DBH 1 edota 2ko neska Gipuzkoarra (haur kategoriako neska). Herri zehatz batean egin nahi izanak hau hala erabat osatzea zaildu izateak egoerara moldatu beharra ekarri du. Gaur egun kirol antolatuan jarraitzen duten bi nesken partaidetza egon da focus groupean, hortaz, benjamin zein kimu aldian eskola kirolean aritu izana eta ostean utzi, federatu nahiz beste jarduera batera pasa direnera zabaldu da eskakizuna. Modu batean zein bestean neskek baloratzen dituzten elementuak identifikatzea da helburua, hauek uzte zein jarraipenean eragin dezaketeelarik.

3.5. Focus groupa burutzeko prozedura

Focus groupa osatu arte honako prozesua burutu da:

- *Herriko eskola kirolaren berri izan:* Herri mailako eskola kirolaren arduradunarekin elkartzuz egoeraren berri izan.
- *Herriko zentroekin harremanetan jarri:* Harremanetan jartzearen helburua ikerketaren berri eman eta honen burutzearen kolaborazio proposamena luzatzea izan da. Bietan prestutasuna izan da lehen unetik lan honekiko, baina, subjektuen perfilaren

eskakizunak direla eta bakarretik egon da aurrera jarraitzeko aukera.

- *Partaideen taldearen osaketa:* Behin eskakizunak betetzen zituzten neskek hautemanda hauei partaidetza proposamena egin eta baimena pasa zaie, gurasoen onespina izateko. Honela, aurrez aipatutako bostak lortu dira zentroko zuzendariaren kudeaketari esker.
- *Focus grouparen zehaztapena:* Zentroko zuzendariarekin lekua eta ordua zehaztu eta neskei adierazi zaie ontzat eman dutelarik.
- *Focus groupa burutzea:* Bazkal orduko atsedenean burutu da bost neskekin eginiko focus groupa. Zentroko gela batean gauzatu da, mahaian grabagailuak jarritik une honen osteko analisia ahalbidetu dezaten.

4. FOCUS GROUPAREN ANALISIA

Focus groupa burututa bertan jasotako informazioaren analisiari ekingo zaio. Aldez aurretik esan beharra dago grabazioa idatziz jasotzerakoan eurek hitz egin bezala mantendu nahi izan dela, esku-hartze eta eragin gutxiena izateko asmoz. Analisi honetan, aurrez aipatu diren lau dimentsio nagusiak aztertuko dira banan-banan: eskaintza, beste zereginak, harremanak eta eskola hurrenez hurren. Hauetako bakoitzaren hasieran taula bana ezarri da bertako elementu esanguratsuenak eta eskola kirolarekiko nola eragin ote dezakeen laburtuz. Eragin hau positibo (+), neutro (=) zein negatibo (-) gisa adierazi da taulako eskuin zutabearen, partaideek hautemandakoaren arabera.

Honekin batera, jakinarazi nahi da ondorengo lerroetan ageri den nesken aipamen oro eranskinetan topa daitekeela (1. Eranskina), baita grabazioan ere. Grabazioan errazago identifikatzeko asmoz, honakoak dira atal bakoitzaren minutu tartekak: noiz hasi eta hastapenaren ingurukoa 00:00/03:50 bitarte, Eskaintza 03:50/11:44, Beste Zereginak 11:44/16:10, Harremanak 16:10/26:05, Eskola 26:05/28:08 eta Hausnarketa (eranskineko barne faktore eta amaitzeko galderetatik laburtua) 28:08/34:41.

Lau dimentsioetan barneratzen hasi aurretik, eta hurrenkera jarraitu zein testuinguruan jartzeko asmoz, eginiko galderei emaniko erantzunak aztertuko dira. Hasierako atal honetan eskola kirolean noiz hasi zein utzi eta hauen arrazoiak adierazten dira.

4.1. Kokapena

Partaideei eskola kirolaren haste adinaz galdetzerakoan bostak hirugarren mailan hasi izana adierazi dute, eskola kirola hasten den ikasturtean.

3P-“hirugarren mailan”; 1P-“hirugarren mailan”; 2P- “hirugarren mailan o bigarren mailan”; 5P-“ ebai”; 4P-“ ebai”

Partaideen hastean eragina izan zuten aldagaien artean ondorengo taulan labur daitezkeenak adierazi dituzte:

3. Taula: Partaideen hastapeneko aldagai eragileen hautematea (neuk landua)

HASTAPENENKO ALDAGAI ERAGILEAK	ESKOLA KIROLAREKIKO ERAGINA
Bizipen berria	+
Motibazioa	+
Harremanak	+

Egin dituzten aipamenen artean **bizipen berriari** egin dio erreferentzia batek, Benjaminen kategoriako lehen urteko une honetara arte ez baitago halako eskaintzarik.

4P- “ba, probatzeatik”

Beste partaide batzuk adierazitako arrazoiek gustuko izatea adierazten dute, norbanakoaren **motibazioarekin** zerikusia duena.

5P-“emm... kirola gustatze zait ta sin mas, zeon aukera ba horreatik aprobetxatu nun”

3P- “korrika itea gustatze zitzaitelako”

2P- “kirola asko gustatzen zaidalako ta aukera ona pentsatzen nulako izango zala”

Azken partaideak galdera honen aurrean kideen aipamena egin du, **harremanak** bere hastapenean garrantzia izan zuelarik.

1P- “ee... lagunak animatu in zidatelako”

Behin noiz hasi ziren jakinda, ea noiz utzi ote zuten galdetzerakoan aurreko galderan erantzundakoaren antza du, lau bat baitatoz uzte unearekin.

3P- “seigarren mailan; 2P- seigarren mailan; 1P- Seigarren mailan; 4P- ni seigarren mailan eta 5P- bosgarren mailan o ola...”

Honetan ere, hastapeneko galderan egin bezala, uztean zerikusia izan zuten aldagaien inguruan galdetu zaie, arrazoia ondorengo izanik:

4. Taula: Partaideen uzte uneko aldagai eragileen hautematea (neuk landua)

UZTE UNEKO ALDAGAI ERAGILEA	ESKOLA KIROLAREKIKO ERAGINA
Harremanak	-

Partaideek adierazi dute euren lagunek utzi izanak zerikusia izan zuela hartutako erabakian, **harremanak** une hartan partaidetzarekiko negatiboki eragin ziela alegia.

5P-“ ...nik uste danak desapuntatu in ziala ta ordun ni re desapuntatu in nitzan...”

4P-“ debai”

5- “...Inor ez zan animatzen ola nesketan da ola, pues ordun, ni re desapuntatu in nitzan bosgarren mailan...”

M-“ ez zenekalako beste inor animatzeko”

5P- “animatze zianik”

2P- “rebai ustet bosgarren mailan izan zala, eo seigarren mailan, ta utzi non zeba... zeba... lagunak debai desapuntatu in zian, ordun...”

Halere, nahiz eskola kirola utzi, esan beharra dago gaur egun jarraipena ematen diotela kirol zein ariketa fisikoari.

2P-“ eee... dantzan hasi nitzan”

1P-“ futbol en ta halterofilian”

5P- “eee... ni txikitatikan ya ba dantzan neon ta segitzet dantzan osea ta...”

3P- “atletismon”

4P- “ni txikitatik dantzan hasi nitzan baino,seigarren mailan o ola, ustet seigarren mailan, utzi nula ta gero wu-shu-n hasi nitzan baino ebai utzi in nun ta uain bizikletan ai naiz nire kontutik”

4.2. “Eskaintza” dimentsioa

Behin partaideen profila ezagutu eta egoeran kokatuta, lau dimentsioen analisisian jarriko da arreta. Aurrez aipatu bezala lehena Eskaintzari dagokio, eta honen inguruan eginiko galdera ezberdinen aurrean izan diren kontakizunak modu honetara sailka daitezke:

5. Taula: Partaideen jarraipenerako eskaintzaren aldagai eragileak (neuk landua)

ESKAINZAKO ALDAGAI ERAGILEAK	ESKOLA KIROLAREKIKO ERAGINA
Kirol aniztasuna	+
Sexu bereizketa	-
Asteburuko partiduak	+
Jendarte aniztasuna	+
Testuinguru aldaketa	-

Partaideei euren garaian izandako eskaintza formatuaren inguruan hiru kirol nagusitan eta asteburu batzuetan beste kirol batzuetan jardun izanaz galdetu zaie, baiezkoa erantzun dutelarik.

1P- “bai”; 2P- “bai”; 3P-“bai”; 4P-“bai”;

2P- “ee... izate zien batzutan atletismoko probak ta ola... (5- hoi da), enaiz oso ondo goatzen, gero ping pong, ta ez dakit...”

5P- “juten ginan ola, Tolosara ta ola pruebak itea, ping-pong-en ibiltzen ginan eee... pelotan ebai ta ola, asteburu batzutan diferentea izate zan, baino normalen futbola ta ola izate zan”

Baieztapen eta azalpen hauen ostean, ea halako eskaintza, **aniztasunarena** kirol ezberdinak barneratzen dituenarena, gogoko ote zuten eta positibo ikusten ote duten galdetu zaie, ondorengo erantzunak emanaz:

2P- “bai, zeba bestela denbora guztin iguala iten igual pixkat aspertu o ola ite zinan ta ordun...”

5P- *“eee... nei kirol batzuk gehio gustatzen zitzaizkian beste batzuk baino, adibidez nei baloncestoa ez zitzaian gustatzen asko, ordun gehio gustatzen zitzaian besteta pasatzea, diferentek itea re asko gustatze zait”*; 4P- *“nei debai”*; 1P- *“debai”*; 3P- *“ebai”*

Eskaintza anitza izatearekin batera, Benjaminen kategoria mixtoa da, neska-mutilak batera aritzen direlarik, baina, hemendik aurrera **bereiztera** jotzen da normalki. Hau halere ez da kasu guztietan:

1P-“ *...neskak ez zeuden apuntatuta ... mutilekin jarri ziguten , osea ni ta beste lagun bat (M- aham...) ta mutilekin jun ginan”*.

Neska honi berari ea egoera hau nola bizi ote zuen galdetzerakoan bzipena positibotzat jo du.

1P- *“bai, bastante ondo”*

Beste partaideei zuzentzerakoan bereizketa honen aurkako azaldu dira, batera jarraitu nahia adieraziz.

2P- *“nei ez zait ondo iruitzen zeba nik ustet eee... denak batea, osea denak batea izan beharko zien, porke hola ez zan diferentziaikan ikusten”*

5P- *“eee... nei ebaita, ze azkenen eee... denak batea ibiltzea, igualak gea”*

Batera ibiltze honetan mutil batzuek izaniko jokabideari aipamen egin dio 5P-k, (2 eta 4Pk baieztatuz) jokoan zeharreko berekoikeriari. Halere, nahiago du batera aritzea lukeen eskaintza.

5P- *“... gero rebai txikitan asko pasatze zan mutilak ez zuela pasatzen ta ola (2P,4P- ya...). Askotan pasatzea ze gehiegi “txupatzeue” ta ola, ordun neskak ebai asko kejatzen gea, baino nik nahiago det denok batea ibiltzea...”*

4P- *“nire ustez ebai”*

Eskaintzaren egiturari erreparatuz, entrenamendu eta partida banaz osatzen ziren asteak (kirol ezberdin horietako asteburuetan salbu). Bi hauen inguruan lauk nahiago dute **asteburuko partidetara** joan entrenamenduetara baino.

*1P- "partiduta"; 5P- "partiduta"; 2P-"partidota"; 4P-"partiduta"; 3P-
"nik nola enun futbola iten, pues, enitzan juten"*

Nahiago izate horretan aspektu ezberdinek dute zerikusia neska hauentzat; partidak zeharka eskain ditzakeen aspektuetatik (arreta zentro izatea, ikusleak izatea edota lagunak egitea) berezko dituenara (lehia).

1P- "gurasok daudelako beidatzen ta ola ta, nose, ondo..."

4P- "hobeto sentitzen zea"

1P- "oida, hobeto"

5P- "atentzioa, osea, zu zea azkenen jokatzen ai zeana ta jendea guztia beidatzen ai zaizuna, ordun nei gehio gustatze zait"

4P- "pues ondo pasatzezula"

1P- "lagun berrik iteituzu ta ola"

2P- "eee... nei partidok gustatzen zitzaizkiten, ze da en plan nahizula irabazi, irabazi... ta guai dao"

Partidetan lagun berriak egitea eta orokorrean eskola kirola lagun berriak egiteko eta **jendarte anitzagoarekin** egoteko aukera partaideek adierazitako zerbait da. Beste ikastetxe zein inguruko herrietara jokatzerara joatea begi onez dakusatelarik.

5P- "bai, eee... nei gehio gustatze zitzaian muitzea hola Asteasua ta Zizurkilea, hola jende desberdinen kontra jokatzezu, zeba azkenen Fleming A Fleming B denak ezaunak gea, bueno, ordun klasen bezela, osea soinketan bezela, baino Asteasukokin ta ola ez deu jolasten, ordun... ondo eote zan"

1P- "ebai"

2P- *“nei gehio gustatzen zitzaiten ba eee...herri desberdinetan muitea ba ez denbora guztin berdinen kontra jolasteko, osea, jende desberdinekin jolasteko ta ola...”*

4P- *“debai”*

3P- *“nik ebai”*

Azkenik, eta eskaintzarekin amaitzeko, behin neskek utzi zuten kategoriatik aurrera maiz dagoen eskaera dela eta aldameneko herri handiagora joan beharrean aurkitzen dira kirol praktikari jarraipen eman nahi izanez gero. **Testuinguru aldaketa** honek zailtasunen bat suposatu ote zien egindako galderaren inguruan erantzun ezberdinak eman dituzte. Batetik arazo edo traba gisa hautematen dutenak:

1P- *“pos, nose... eee... lotsa pixkat, nola denak... osea, ez dituzu ezautzen inor, pues nose, pixkat lotsa”*

5P- *“ni adibidez, netzat bai, ze azkenen munitu in beazu zuk naizuna iteko, ta ni eee... aurtan ta ola eon naiz ba eee... balonmanon ta apuntatzeko ta adibidez, pues astean zehar ez munitzeatikan ze Villabonan eongo balitz eee... talde bat ba ni jungo nitzan apuntatuta baino, nola ez daon, pues muitea asten zehar ya gehiegi iruitze zait, ya gauz gehiegi dazkat ta ordun muitea re gehiegi da”*

2P- *“ni, osea leno Villabonan zeon gimnasia ritmika iteko ta... ee... ordun ya bukatu inzan ta nik nahi nun segi, baino Tolosaino jun behar nintzan ta entre ke ikasketak ta gero munitu in behar zeala pues azkenen denbora kentzeizu”*

4P- *“ite nun wu-shu leno ta Villabonatik Udalak lokala itxi zien ta oain Tolosaino ez juteatik, pues... ya utzi in non”*

Azken honi, 4P-ri lagunen batek aldameneko herrira joateko proposamena egingo balio zer egingo ote lukeen galdetuta erantzuna oso argia izan da:

4P- *“jungo nitzake”*

Bestetik, kirola egiteko herriz aldatu behar arren aurrera pausoa eman duen neska:

3P- *“ni leno ibiltze nitzen atletismo eskolan, Otañon, ta oain nola bukatuan, ez daon, pues oain Tolosa jute naiz, ta ondo”*

Halere, herrian izango balu nola ikusiko ote lukeen galdetuta argi du:

3P- *“bai, onbre, ba nire herrin bazeon ba hobeto, baino...”*

4.3. “Beste zereginak” dimentsioa

Bigarren dimentsioa “Beste zereginak”-i dagokio, bertan ere honako alderdi ezberdinak izan dituzte kontuan:

6. Taula: Partaideen jarraipenerako beste zereginen aldagai eragileak (neuk landua)

BESTE ZEREGINEN ALDAGAI ERAGILEAK	ESKOLA KIROLAREKIKO ERAGINA
Denbora falta: <ul style="list-style-type: none">▪ Estraeskolar▪ Etxeko lanak	-
Dantza taldea	=

Partaideek aitortu dutenez, eskolaz kanpoko denboran egiten diren zeregin ezberdinak izan zituzten eskola kirolean zebiltzan aldi berean.

5P- *“...ni ibiltzen nitzan dantzan, musikan ta... ta ustet hola, ta deporte eskolarren, ta besteik ez”*

4P- *“deporte eskolarren ta dantzan”*

(zurrumurruan: 5P- *“ta katekesis”*, 4P- *“a, ta ketekesis”*)

3P- *“deporte eskolarren ta inglesen”*

1P- "... deporte eskolarren, ta zean... igeriketan, pistinan"

2P- "deporte eskolarren ta igeriketan debai"

Honek denbora kudeatu beharra eskatzen du eta gauza gehiegi izanez gero baten bat utzi beharra kasuren batean ere.

1P- "ni goatze naiz deporte eskolar ez dakit ze egunetan geneukala ta debai justo debai pistina nekala ta nola, ustet astian behin ite zala deporte eskolarra, ordun deporte eskolarrea juten nitzan ta igeriketa pues hurrengo egunen"

5P- "eee... ni bai, osea, denbora aldetikan ee... amak esaten zian gauza gehiegi nezkala ta azkenen ba deskartez edo kendu nun deporte eskolarra... rebai lagunak utzi zuelako, osea, eztakit..."

Hein batean eskolaz kanpoko jarduerak denbora murrizten dute, hemendik erator daitekeen **denbora faltak** eragina izan dezakeelarik. Denbora falta honetan ere neska hauen iritziz zerikusia daukate eskolatik bidalitako etxeko lanek, non neskek adinean aurrera egin ahala euren aisialdi denboran eragina dutela dioten.

2P- "aber, leno txikitan ez genuen asko iten eskolan (4P- ya...), osea ez zan asko ikasi behar, baino gero ya oain (1P,4P- oain bai), nola kixton etxeko lan pila dauzkaun ta oi pues bai"

1P- "oain bai, ze oain nei adibidez eee... nei bai kentzeitela denbo asko ikasteko ta ola, ta, pues batzutan agobiatu ite naiz ta ola"

3P- "nei rebaita"

4P- "nei ebaita"

5P- "osea nei kentzeit baino azkenen planifikatzen bazea nei denbora emateit denetako, osea, eztakat re ez gauza asko, asike nei sin mas..."

Hau ikusirik honen osteko bi galderak eurentzako ea etxeko lanek beste zereginetikiko lehentasuna ote duten eta ea etxeko lan gutxiago izanez gero

kirolari denbora gehiago eskaintzeko moduan leudekeen eta hala egingo ote luketen izan da. Lehenarekiko erantzuna:

5P- "bai"; 2P- " bai"; 1P- "bai"

Bigarrenari ere bostek azkar batean eman diote erantzuna:

2P- "bai"; 4P- "bai"; 1P- "bai"; 5P- " bai"; 3P- " ebaita"

Azken galdera honi loturik ere ikus daiteke denbora mugatua izateak kirolaren jarraipen kasu zehatz batean (aldameneko herrira joatean adibidez) eragina izan duela 2P eta 5P-ren kasuetan.

5P- "... muitzea asten zehar ya gehiegi iruitze zait, ya gauz gehiegi dazkat ta ordun muitzea re gehiegi da"

2P- "ni, osea leno Villabonan zeon gimnasia ritmika iteko ta... ee... ordun ya bukatu inzan ta nik nahi nun segi, baino Tolosaino jun behar nintzan ta entre ke ikasketak ta gero maitu in behar zeala pues azkenen denbora kentzeizu"

Estraeskolarrinari helduz, herri honetako **dantza taldeak** bertako hainbat neska-mutil mugitzen ditu. Honen adibide dira ikerketako partaideetako batzuk, bai eskola kirolaren aldi berean arituz:

5P- "eee... ni txikitatikan ya ba dantzan neon..."

4P- "ni txikitatik dantzan hasi nitzan baino, seigarren mailan o ola, ustet seigarren mailan, utzi nula..."

Nahiz behin eskola kirola utzita ere, hauetako bat une honetan hasi zelarik:

2P- "eee... dantzan hasi nitzan"

5P- "...ta segitzet dantzan osea ta..."

Zentzu honetan ea eskola kirola egin beharrean dantzara joan zen ezagunen bat ba ote duten eta egoeraren inguruan galdetzerakoan bakoitzaren gustuak eta generoaren araberako rola adierazi dute partaideetako bik:

2P- “bai”; 2P-“ ...ze nahiago zun dantza jun ta yasta ustet”

5P- “nik ustet ee... ya txikitatikan mutilak direktamente deporte eskolarrea jute diala, mutilak ez dia asko ikusten mutilak dantzan. Osea, ikusteituzu igual bi o hiru ola gure edadekok ta txikitatik hasteyanak, amak ta sartzeyena, baino, gehienak ya denak futbolea eo deporte eskolarrea dijoazte”

4.4. “Harremanak” dimentsioa

Hirugarren atalean harremanen gaia plazaratu da, agertu diren aldagai ezberdinen artean jarraian datorren taulan laburbiltzen direnak:

7. **Taula:** Partaideen jarraipenerako harremanen aldagai eragileak (neuk landua)

HARREMANEN ALDAGAI ERAGILEAK	ESKOLA KIROLAREKIKO ERAGINA
Motibazioa: <ul style="list-style-type: none">▪ Animoak▪ Konfiantza▪ Arreta zentroa▪ Hurbiltasuna	+
Jarrera/jokabidea: <ul style="list-style-type: none">▪ Hurbiltasuna	+
Kide berriak	+

Harremanek eskola kirolean izan dezakeen eragina hau bera aurkeztu aurretik adierazi du partaide batek, berarentzat hasteko aurrera pausoa emateko garrantzitsua izandako aldagaia izanik.

1P – “ee... lagunak animatu in zidatelako”

Honez gain, inguruko jokabideen aspektu ezberdinei deritzote positibo euren bizipenen aldetik, **motibatzen** dituztenak alegia. Batetik animoaren aipamena egin dute, bertan eragina bide ezberdinetatik erator daitekeelarik.

Bide hauen artean entrenatzaile zein gurasoenak jakinarazi dituzte, kirol egoerako **animoen** balorazio ona eginez.

- Entrenatzaile:

5P- *“nei iruitze zait entrenadoreak animatze baizu, edo zu gehio motibatze zeala edo, ta ordun ba, pixkat... ee... gustogo jute zeala klaseta ta ola”*

1P- *“ee.. nik aurten ezautuet futboleko entrenadorea... ..partida baten futbolen o ola zoze ez bazaizu ateatzen, o ikusteizu gaizki zaudela ba pos animatu iteizu ta... ondo”*

- Guraso:

3P- *“nei gehio motibatzeit gurasok eta animatzea ez animatzeak baino, bestela hor geatze zea como... sin mas, hola...”*

1P- *“eee... ni aurten ebai halterofilian apuntatu naiz ta gurasok animatu ite ziaten ta ola, porke gustatzen zaielako ta hola, ta oain dela gutxi irabazi non medallak ta hola ta pos esaten ziaten ondo ikusi ziatela ta hola konpetizion ta hola ta...”*

Bestetik, eta ildo beretik jarraituz **konfiantza** aspektu motibatzaile gisa identifikatu du 2P-k.

2P- *“bai, ze igual entrenatzaileen, osea, ez bazea ondo ematen entrenatzaileekin... osea gustoago jute zea entrenatzaile... osea aber, ondo emate zean batekin gaizki emate zeanakin baino, osea gogo gehio emateizu”*

2P- *“bai, ze rebai ee.. igual.. entrenadoreak nahiago baitu beste pertsona batzuk zeba zu txarragoa zea pues horrek gogo gutxigo jartzeizu partidotan ta ola, porke bakizu zutaz ez dula konfiatzen bezela, bamos”*

Animo eta konfiantzaz gain, neskek motibagarritzat ere jo dute **arreta zentro sentitzearen** alorra, gustuko omen dutelarik partida egoerak sortu eta

hemendik eratortzen diren egoerak (gurasoekin izan dezaketen hurbiltasuna kasu).

2P- “nei gustatzen zitzaiten ba... partidok jokatzen genitunen ta irabazten genunen edo galtzen genunen esatea “joe, super ondo jolastuzu” ta pues, gustatzen zitzaiten”

1P- “ba ni deporte eskolarren neonen goatze naiz partida bukatu ta gero jute nintzan etxea ta aitai esate nion ea ondo jolaste non, emateko bere iritzia, hola zer non hobetzeko ta hola”

5P- “nei deporte, osea, gustatze zait ta ordun ba gehio gustatze zait oaindikan jendea beidatzen ai zaitenen, pues gehio... (4P- motibatzen zea)... motibatzen zea ta hola, gustatzen zait ta ordun ba nire gurasok beidatzea gehio oaindikan, osea, ez dakit...”

Honekin batera ere entrenatzaileari aipamen egiten dio 5P-k, non bere arretari ere garrantzia eman dion.

5P-“ ...ta azkenen ez dizu kaso iten ta ola, pues azkenen zu etzea juten gogoz, ordun... beste nunbaiten apuntatzen zea”

Motibazioan adieraziriko elementu ezberdinak hautemateaz gain, **ingurukoek izandako jarrera** ere eragingarritzat jo dute partaideek. Honetan bereizketa lauen artean egin behar da: entrenatzaile, guraso, gorputz hezkuntzako irakasle eta lagunak.

- *Entrenatzaile:* Pertsona honen jarrerak eragin ote dezakeen galdetuta honakoa izan da erantzuna:

2P- “bai”; 1P,3P,5P,4P- “bai”

Honen perfilean zein ezaugarri baloratzen ote duten azaltzerakoan jatorrasuna adierazi du 5P-k.

5P- “bai, ze azkenen entrenadorea borde bordea baldin bada ta azkenen ez dizu kaso iten ta ola, pues azkenen zu etzea juten gogoz, ordun... beste nunbaiten apuntatzen zea”

Jarrerarekin batera, entrenatzailearekiko gertutasuna azaldu du 2P-k, gorputz hezkuntzako irakaslearengana joan baino lehenago joko bailuke honengana.

2P- "...igual balin bazkazu dudak pues zoze aber nola itean igual al diozu galdetu (irakasleari), baino... hortako entrenadorea dao, entrenatzailei galdetzen diozu..."

- *Guraso:* Etxetik kirolarekiko jasotako jarrerari aipamen egin diote, kirolaren onuren jakitun direlarik.

5P- "... amak ta oi esateigue (4P-oida), behintzat zozertan eon behar geala apuntauta"

2P- "osea beharrezkoa bezela dala"

1P- "nei esateyate e, kirola oso garrantzitsua dala hola gorputzantzako ta hola, ta oi..."

2P- "nei esaten dit nire amak ta nire aitak ondo daola kirola itea, ze azkenen ee... osea, egunero ite bazu kirol pixkat pues, forman mantentzen zea ta hola"

- *Gorputz hezkuntzako irakaslea:* 2P eta 5P-k hasiera batean ez dakusate eraginik izan dezakeenik, norbanakoaren erabakian uzten dutelarik apuntatzearena.

2P- "ez du zertan, osea, zuri gustatzen bazaizu?"

5P- "osea, azkenen oida"

- *Lagunak:* aurrez ikusi da lagunek zerikusia izan dutela 1P-ren hastapen zein uztean (2P,4P edota 5P). Harremani garrantzia berezia eman diete bost neska hauek honen inguruan galdetzerakoan. Halere, bereizketa bat ikus daiteke, Benjamin garai hartan edota orain lagunek rol ezberdina jokatuko luketela baiteritzote, adinean aurrera egin eta jardueran barneratzen joan ahala eragina murriztearen aldetik.

5P- *“ee... nei adibidez oain ne lagunak dantza utziko bazuen nik segi ingo nun, baino txikitan azkenen, osea... norbait ez balinba dakazu, nola ya oaindikan txikia zean pues azkenen eee.. segi iteyezu zure lagunei (4P-oida), baino ya zoze gustokoa dakazunen ya , pixkat edadea dakazunen haundigoa ba... gustoko horrei segi iteyozu”*

4P- *“oida”*

2P- *“ee.. nire.. osea ni enitzen hasi txiki-txikitatik dantzan, duela gutxi hasi naiz, ordun nola jendea ta hola pixkanaka gehio ezagutze nun, ba ya nire lagunek ere utziko bazuen nik enuke utziko”*

4P- *“nik uste denei pasatze zaigula txikitan hola lagunak desapuntatze badia zuk beti esatezula desapuntatu in nahizula, baino... geo haunditan ikustezu zuk nahizula ta ordun geatu ite zeala, nik uste”*

Erantzun hau jasota eginiko ondorengo urratsa ea behin kirol jarduera gustuko izatean lagunak eragina (dependentzia) murrizten ote den jakitea izan da, eta hau hiruk baieztatu dute:

2P- *“bai”*; 4P- *“bai”*; 5P- *“ aham...”*

Hau bera deritzo 1P-k honen inguruan eginiko adierazpenak, non bere barne motibazio nahikoaz aurrera jarraitzea erabaki zuela dioen:

1P- *“... erdialdea eo hola, mas o menos, desapuntatu in zan ta, ni pos aber, neska bakarra nintzan baino, aber, nei gustatze zitzaiten ordun pues ni geatu in nitzan ze nei gustatu ite zitzaiten ordun pues geatu in nitzan”*

Harremanetan ere **kide berriak** egiteko baliagarritasunaren inguruan eginiko galderari baiezkota erantzun diote neskek.

2P- *“bai”*; 4P- *“bai”*; 5P- *“bai”*; 1P- *“bai”*; 3P- *“bai”*;

Esan behar da 1P-ren kasuan laguntasun horretara hutsetik hasita iritsi dela dioela, honen inguruko harreman bilakaera antzemanez.

1P- “ba, ni, aurten apuntatu naiz futbolen ta bueno, jendea rebai, ta nik jendea enun ezautzen ta pues hasieran enun hitzeiten ta ola, baino gero ya entrenamendutan ta ola pos ikusten nun pues pertsona onak ziela ta ola ta, gero kaletikan beste pertsona batzuk emateue ta ola...”

4.5. “Eskola” dimentsioa

Laugarren eta azken dimentsioari, “Eskola”renari dagokionez, aspektu baten bi alde ezberdintzen ditu 2P-k:

8. Taula: Partaideen jarraipenerako eskolaren aldagai eragileak (neuk landua)

ESKOLAREN ALDAGAI ERAGILEA	ESKOLA KIROLAREKIKO ERAGINA
Sustapena	+ (Animatu)/ - (tematu)

Eskolak ea eskola kirolaren **sustapenean** esku-hartu beharko ote lukeen galdetzerakoan 2P-k baiezkoa aipatzen du, beti ere bakoitzaren erabakitze askatasuna bermaturik.

2P- “nik uste ez dala beharrezkoa animatzea, ze ee... azkenen presionatu iteiozu “apuntatu, apuntatu, apuntatu...” ta ordun, pues hobeto da nahi duna itea ta ez bada apuntatzen pues bueno, ez dela ezer pasatzen. Baino bueno, ez da gaizki eoten animatzea pixkat baino ya denbo guztin insistitzen eotea pues ez”

4.6. Hausnarketa

Focus grouparen analisi honekin amaitzeko eskola kirolaren inguruko hausnarketa proposamena egin zaie. Bertan, euren esanak jarraian datozen puntuetan labur daitezke:

9. Taula: Eskola kirolaren ekarpen hautematearen hausnarketa (neuk landua)

HAUSNARKETA	ESKOLA KIROLAREKIKO IKUSPEGIA
Abiapuntu	+
Ikasketa	+
Jarraipena	+

Partaideen ekarpenen artean azken hausnarketa honetan, 1P-k eskola kirola jarduera aitzindaritzat izana aipatu du, kirol munduan **abiapuntutzat** jo daitekeena.

1P- “ze nire lenengo kirola izan da eskola kirolana ta oi”

Kirol esparruan hasteko ea lagungarri ote deritzoten jakin nahirik, honen inguruan galdetzerakoan hiru neskek baiezkoa diote.

1P- “bai”; 2P-“bai”; 4P-“bai”

Eskola kirolaren baliagarritasuna hastapen honek ahalbidetutako ezagutza eta **ikasketa** aldetik dakusate neska hauek, honen adierazle ere da kirolaren barne logika gertuagotik bizitzearen ekarpena edota kirol ezberdinekiko jakintza areagotzea.

1P- “asko ikasteala”; 4P- “oida, asko ikasteala”; 2P- “kirolei buruz gehio dakizula”

1P- “...nik futbola enekin nola jolaste zan, balonzesto re ez, ta hola, ta ordun, pos nose, ikasi in nun nola jolasten zan ta hola”

4P- “oida, ikastezu nola dijoan ta nola in behar dan ta hola, osea...”

1P- “ta nik uste oain futbolen naola , nose, eskola kirolak zeoze in ditela hor...”

M- “oinarri bat bezela eman?”

1P- “oida”

M- “gero ya hortiken (1P-oida) gehiago garatzen joateko”

2P- “eskola kirolen apuntatu baino lehenago futbolen jolasten banekin, baino sin mas, osea,... baloia botatzen ta porteria gola sartzen ta yasta, baino arauak en si enekizkin oso ondo”

3P- “ni rebai, ta nik igual “altura” iten banekin salto in behar zala baino hankak ez dakit, ez nekizkin nola jarri ta hola, ta oain mas o menos bakizkit ta hobeto itet”

Beraz, euren jakintzarako zein honen osteko kirol jarduterako **jarraipen** eta garapenerako oinarritzat jotzen dute eskola kirola. Etorkizuneko jarraipenaren ildoari jarraiki, eta amaitzeko, lagungarri deritzote eskola kirolak emandako oinarri hau izateari, erraztu egin baitezake.

2P- “lagungarri izan da ze bakizu kirol horren nola... (5P-funtzionatzeun)... arauak ta hola bakizkizu ta ordun etorkizun baten pues nahi bazu apuntatu ba eztezu... eztezu... (5P- berriz ikasi behar dena) berriz ikasi behar dena”

4P- “oida”

3P-“ya, oida”

1P- “ebai”

5P- “ebaita”

M- “Ta gero rebai, ez?, kirol ezberdinak ezagutu izana bai pixkat etorkizun baten ere (2P-bai) jakiteko (5P- aham, 1P- bai) baliagarri bezela”

5. ONDORIOAK

Atal honetan neska partaideek aurrez adierazitako euren eskola kirol bizipenean oinarrituz positibo zein negatiboki baloratutako aspektuen ondorioztatzea egingo da. Bertan, lehenik orain arte jarraitutako lau dimentsioen egitura mantenduko da nesken ondorio gisa, ostean, hauez hausnartuz aldagai ezberdinen arteko harreman eta lotura azal dezakeen ondorio orokorra egin, eta azkenik, marko teorikoan adierazitakoarekin focus groupetik ondorioztatutakoaren arteko alderaketa.

5.1. Focus grouparen ondorioak

❖ Eskaintza

Eskola kirolarekiko eskaintzaren inguruan orokorrean kirol aniztasuna nahiago izateak (gutxitara mugatzeak gehiago aspertzeko joera izan dezakeelako) gaur egun egiten ari den multikirolak edo multiekintzak bezalako eskaintzekiko onarpena adierazten dute neska hauek, kirol ezberdinak egitea asko gustatzen zaien zerbait delako. Hortaz, badirudi halako eskaintzek arrakasta izan dezaketela nesken artean, hauen artean balorazio positiboa jaso baitu gutxienez. Herriko eskola kiroleko koordinatzaileak adierazi bezala, herri honetan bertan 2010-11 ikasturtetik “Multiekintzak” izenpean jarduera ezberdinez osaturiko eskaintza dago aukeran, dozena bat kirol jarduera ezberdin egiten dira urtean zehar bakoitzean gutxi gora-behera pare bat astez jarduten direlarik. Hau ezartzearen helburuetako bat nesken partaidetza sustatzea izan zen, neska hauek jasotakoarekin bat datorrena.

Honez gain, genero bereizketa begi onez ez ikustea eta benjaminetan bezala batera jardun nahia adierazi izana esanguratsua da, are gehiago mutilek behar beste ez pasatzea (“txupatzea”) bezalakoak aipatzen dituztela kontuan izanik. Mutil batzuek duten jarrerarekin kritiko agertuta ere nahiago dute sexuka bereizitako eskaintza baino mixtoa partaideek.

Eskaintzaren egituran gogokoago dute partida egoera entrenamendua baino neska hauek, baina honek berezko duen lehiakortasunetik haratago

(batek aipatu duen arren), egoera honek eskaintzen edo ahalbidetzen dizkien ezaugarri ezberdinak baloratu dituzte; hala nola, aurrez aipaturiko gurasoen arreta izateko aukera, zein ondo pasatzea edota lagun berriak egiteko aukera. Hortaz, esan daiteke lehia ontzat ikus dezaketen arren hau ez dela partidak gogoko izatearen arrazoi bakarra, hots, haratago doala une hauetatik hautematen duten zentzu positiboa.

Lagun berriak egiteko aukera ahalbidetzea ere begi onez ikusten dute eskola kirolean, aldameneko herri zein ikastetxeetako artean bultzaturikoa, eta batik bat beste herrietara joaterakoan. Ikaskideekin aritu baino jende desberdinarekin jolasteko nahia adierazten dute partaideek, bizipen politzat joaz. Alor honetan ere, herri honetako bi zentrok elkarren artean jokatu izan dute aspalditik benjamin garaian. 2010-2011 ikasturtetik aurrera aldiz, herriko eskola kiroleko koordinatzaileak adierazi bezala, bailarako bizpa-hiru herriekin batzea erabaki zen, gaur egun herriko bi zentroak eta aldameneko bi herritako zentro banak elkarrekin parte-hartzen dutelarik, herri ezberdinetan jokatzeko aukera emanez.

Hori bai, lekuz aldatzea gogoko izan arren, beste herrietara joan edota jende desberdinarekin aritzea irtenbide bakarra denean, hau da, behin herriko eskaintza amaitzean, ikus daiteke barne motibazio handia eta oso argi izana adierazi dutenek eman dutela pausoa (3P edota 1P kasu honetan). Besteek jarraitu nahi izan arren arrazoi ezberdinak direla eta (denbora falta, lekualdatzea edo lagun falta) ez dute halakorik egin. Lekuz aldatu behar honetan ere partaide batek aditzera ematen du inor ez ezagutzeak lotsa ematen duela hasieran, hortaz, ondoriozta daiteke lekuz aldatzeko (aldameneko herriren batera joan beharra) pausoa ematerakoan kirol jarduera horrekiko grin edo gogo hori izateaz gain (barne motibazioa) bakoitzaren izaerak ere zerikusia izan dezakeela, norbait ezagutu ezean atzera pausoa ematea suposa baitezake kasuren batean.

❖ **Beste zereginak**

Eskolaz kanpo jarduera ezberdinetan izen emanda egotea egungo gazteenek duten errealitatearen parte da. Egoera honetan ere zeuden eskola kirolean zebiltzan aldi berean ikerketako partaideak, hauengan partaidetzan eragin negatiborik modu zuzenean izan ez duen arren. Jarduera eta zeregin ezberdinetan aritzeari eskolatik bidaltzen diren etxeko lanak gehituz denbora falta adierazten dute neska hauek.

Eskola kirolean zebiltzan garaian etxeko lanek denbora handirik kentzen ez zien arren, lehen hezkuntzatik bigarrenera igarotzerakoan hauek burutzeko denbora gehiagoren beharra adierazten dute. Etxeko lanen aferak eurentzat beste zeregin eta jardueretikiko lehentasuna dutela kontuan izanik, denbora gehiago izanez gero kirolari denbora gehiago eskaintzeko moduan egongo liratekeela onartzen dute. Honez gain, partaideetako bik adierazten dute denbora falta kirol ibilbidea aldameneko herrian jarraitzeko mugetako bat dela (lekualdatzerekin batera). Hortaz, diotenaren arabera denbora falta eskola kirolari jarraipen emateko faktore mugatzailetzat identifika daiteke, beste hainbaten artean. Halere, partaide guztiek etxeko lanek denbora kentzen dietela adierazi arren, hauetako bat aldameneko herrira joaten da atletismora. Honek, herrian aukera balu nahiago lukeela esan arren, txikitatik korri egitea gustuko zuela adieraztearekin badirudi barne motibazioak kirol praktikari jarraipena emateko balio diola.

❖ **Harremanak**

Batetik, lagunuen kasuan, partaideek oso aspektu garrantzitsutzat dutela gauza nabaria izan da, partaidetzari begira onerako (haste zein jarraitze estimulutzat) zein txarrerako (uzte arrazoitzat) dena. Neskek esan bezala, txikitari zerikusirik handia dute lagunek, euren erabakiak norbanakoari eraginez. Eragina barne motibazioari ere gailen daitekeela ikus daiteke 5P edo 2P-ren kasuak erreparatzerakoan, gustuko izan eta jarraitu nahi izan arren adin hauetan lagunuen indarra oso handia dela aditzera emanez. Hortaz, badirudi oso argi eta barne motibazio handia izan ezean uztera bidera dezakeen aldagaia

dela lagunena. Halere, honen ostean diote behin adinean aurrera egin ahala eta jarduera horretan barneratzen joanez murrizteko joera duela eragin horrek, hau da, ez omen dela hain erabakigarria euren ustez.

Bestetik, badirudi entrenamendu zein partidetan eurekin dauden entrenatzaileek ere euren eragina izan dezaketela neska hauen arabera. Izan dezaketen jarrerak baldintza ditzakeela esanez ontzat ikusten dituzte entrenatzailearengan honekiko ondo moldatzea edota honen animoak jasotzea, gehiago motibatzen omen zirelako gogo gehiago jarriz eta gusturago joanaz. Azken batean, diotenaren arabera, hauek jarraipenerako arrazoi izan daitezke, eta aldiz, hauen ezak uzte aukerak areagotzeko arrazoi.

Lagun eta entrenatzaileez gain, gurasoak ere kontuan dituzte eurengan eragina izan dezakeen aldagai edo estimulu gisa. Hauek partida egoeretan duten rola dute gustuko gazte hauek, bertan tarte batez bada ere gurasoen arretaren jabe izatea positiboki baloratzen dute. Honez gain, etxeko esparruan gurasoekin partidako egoeraz hitz egitea eta eurak baloratzea ere gogoko dute. Beraz, gurasoen arreta bereganatu eta komunikazioa ahalbidetzeak eragin ontzat jo daitezke esandakoari so eginez.

❖ **Eskola**

Neska hauen ikuspegiaren arabera eskolak ez du eskola kirolaren inguruko sustapen rolik hartu behar, animatu agian bai, baina temati agertu gabe eta erabakitze aukera beti ere haur-gaztearengan utziz.

Amaierako hausnarketako ekarpenen artean eskola kirola kirol ezberdinen funtzionamendua (barne logika) ezagutzeko baliagarri izatea eta etorkizuneko jarraipenerako oinarria ahalbidetu izana adierazteak badirudi honek haur eta gazteenen kirol bizipenean izan dezakeen garrantzia azaleratzen duela, hauen kirol ibilbidearen abiapuntu ere izan baita neska hauen kasuan.

5.2. Hausnarketa: Ondorio orokorra

Focus groupean jardundako lau dimentsioen inguruan ateratako ondorioen inguruan hausnartuz euren arteko lotura egin nahi izan da, orain arte esandakoa antolatu eta ondorio orokor koherentea topatu nahian. Honetarako, partaideek esandako guztia kontzeptu bakarraren inguruan kokatu beharko balitz, motibazioa izan daiteke partaidetzaren ardatz gune hori ondoen adierazi dezakeena. Neskek jarduera gogoko izan eta gustura egoteari garrantzia eman izanak motibazioarekin parekatzera bidera dezake, une ezberdinetan termino hau bera ere baliatu dutelarik. Ikusi bezala, haste, jarraipen edo uztean alderdi ezberdinek izan dezakete zerikusia eta eragina, oztopo nahiz indartzaile gisa, hortaz, multidimentsionala den kontzeptu baten aurrean gaudela esan daiteke.

Neska hauen gogoko izate eta gustura aritze horretan, motibaziotzat definitutako horretan, faktore ezberdinek eragiteaz gain, ikusitakoaren arabera bi adar bereiztea egokia izan daiteke: barne motibazioa eta kanpo motibazioa (kanpo estimuluen eragina).

Barne motibaziotzat neskak berak berez eskola kirola nahiz kirola orokorrean egiteko duen berezko gogoia joko litzateke. Hemen kokatuko litzateke partaideek hasteko arrazoitzat kirola gustatu izanaren adierazpena, non pentsaraz daitekeen euren gogoko jarduera izateak bultzatu eta erraztu ziola hastapena. Zentzu honetan ere, berez gogoko izateak eta kirolarekiko asebetetzeak (barne motibazio handia) jarraipenean ere zerikusia izan du partaide baten kasuan, non, herrian nahiago izan arren, aldameneko herrira joan beharra ez duen mugatzat izan.

Kanpo motibazioa berriz, nesken hautu eta jokabidean eragina izan dezaketen kanpotik jasotako estimuluek osatzen dutela esan daiteke. Aldagai bakoitzak maila ezberdinean eta positibo nahiz negatiboki eragingo dio neska bakoitzari, bakoitzaren eta egoeraren arabera baita. Hau da, kanpo motibazioak edo neskak hemendik hauteman dezakeen estimuluek barne motibazio hori indartu edota murriztu dezake, partaidetzan eragina izanez. Honen adibide izan daitezke lagunaren erabaki, entrenatzaile jarreraren, gurasoen erabaki, harreman berriak egiteko aukera...

Barne eta kanpo motibazioa aztertzeraz joaz, badirudi barne motibazioa izan baina oso sendoa ez bada kanpo motibazioaren beharrez egon daitekeela jardulea honetan hasi edota mantentzeko. Hastera edo jarraitzeraz bidera dezakeen estimulu pizgarri hori izan ezean edota izan bai baina honi aurregitean dion faktore mugatzailearen bat badu (hala nola, herriz mugitu beharra edota denbora falta), ez du halakorik egingo eta uztera joko duela dirudi.

Laburtuz, esan daiteke bakoitzak bere barne motibazioa maila apal edo altuagoan izango duela, eta honi eragitean kanpo motibazio zein faktore mugatzaileak egongo direla. Lehenean honen berezitasun eta ezaugarrien arabera positibo, negatibo zein neutroki eragin dezake neska eskola kirolera gerturatzea edota aldentuz. Faktore mugatzaileek aldiz, negatiboki eragingo dute. Izan dezakeen eraginari norbanakoaren barne motibazioa gehitzetik egindako konbinaketatik azken emaitza aterako da: hasi ala ez, jarraitu ala utzi.

Azaldutako guztia modu argiagoan ikusarazi eta ulertarazteko, honakoa litzateke ondorio orokorraren irudia:

Irudi honetan partaidetzako gaketzat jotako motibazioa ardatz izanik aipaturiko bi motibazioak adarkatzen dira. Kanpokoak barnekoan duen eragina gezi bidez irudikatzen da, hau positibo zein negatiboa izan daitekeelarik.

Kanpoko hauen artean harreman, eskaintza zein eskolarengandik eskola kirolaren partaidetzan eragin positibo gisa hautematen dituzten aldagaiak kokatzen dira. Berdez daudenak modu positiboan eragingo duten aldagaiak dira, positiboki baloratu dituztenak eta hala gertatuz gero adierazitako eragina zentzu positiboan joango litzatekeena. Aldiz, gorritz dagoenak zein berdez daudenen falta/eskasia zein aurkako egoerak egongo balira, negatiboki eragingo lukete norbanakoaren barne-motibazioan.

Barnekoen artean berriz, sendoa eta ahula bereizten dira bakoitzak jarduerarekiko duen grinaren arabera dena. Ahulean lagunak zein entrenatzailea bezalako aldagaiek modu oso zuzenean eragiten dutela adierazi nahi da, orokorrean berdeko aldagaiek zuzenean eragin arren, hauek oraindik haratago doaz. Hau da, besteak positibo mantendu arren hauen faltak eragin negatiboak izango lituzkeela partaidetzan. Honez gain, ikus daiteke ere behin barne-motibazio ahulduntzat jotzen ziren horiek kanpo estimulu positiboan bitartez jarraipena ematean hau sendotu egiten dela lagunaren uzteak ez eragiteraino. Azken batean, barne-motibazio sendoa izanik aldagai negatibo gehienak ez dira hain erabakigarri izango nesken partaidetzan, hortaz, dauden faktore mugatzaileei aurre egiteko adinako gogoia edo gozamina (motibazioa) piztea izan beharko da erronka nagusietako bat neska hauek diotenaren arabera.

Teorikoki azaldu dena ikerketako subjektu batean aplikatuz aurreko mapa kontzeptualak errealitatean modu praktikoan zer-nolako lotura duen ikusarazi nahi izan da, partaide guztiekin aplikatu daitekeelarik (kasu bakoitza ezberdina izan arren). Hau da, partaideak esandakoa ondorioetatik abiatuz nola uler daitekeen.

Lehen partaidearen kasura joaz (1P), honek adierazi du lagunaren animoa zela eta hartu zuela eskola kirolean parte hartzeko erabakia. Une honetan bere barne motibazio ahulari lagunaren estimulua gehituz aurrera pausoa ematea erabaki izana interpreta daiteke, halakorik izan ezean

agian emango ez lukeena. Hortaz, egoera horretan kanpo motibazioak positiboki jardun zuela esan daiteke.

Ostean, soilik bi neskek izena eman izana adierazi du, eta besteak denboraldi erdian utzi arren berak jarraitzea erabaki zuela. Bertan, barne motibazio sendoa adierazten du, lagunak uztea bezalako eragin negatiboko kanpo estimulu baten aurrean jarraitzearen hautua egin baitzuen, hasieran kosta arren lagun berriak egin izanak lagundurik. Lagun berriak egin izanak badirudi estimulu positibo gisa baliagarri izan zitzaiola bere lagunak utzi arren jarraipen ematea erabakitzeko.

5.3. Marko teorikoarekiko ondorioak

Azkenik, ondorioekin amaitzeko, focus groupeko neskek esandakoa marko teorikoan adierazitako neskei orokorrean eragiten dieten faktoreekin alderatuz gero, bertan jasotako gurasoen ikuspegiak neska hauenarekin erabat bat ez etorri arren, gurasoen jokabidearen eragina adierazten dute (kirolera animatu izana bietan adierazten delarik kasu). Honez gain ere ingelesa, musika, dantza... bezalako eskolaz kanpoko jarduerak adierazi dituzte ikerketa ezberdinetako neska haiek zein ikerketa honetako neska partaideek mugatzat, ikasteko denbora faltari aipamen berezia eginez bietan. Garaipenean ere antzekotasuna ikus daiteke, aurrez esandakoari erreparatuz, non neskek honi garrantzirik ematen ez diotela dioten eta focus groupeko subjektuek (2Pk irabaztearekin gozatzearena azpimarratu arren) partida egoeratik gurasoenganako arreta bereganatzean jartzen duten arreta partidak eskaintzen duen lehiatik haratago. Alderaketarekin amaitzeko, harremanei dagokienez ere tendentzia berbera ikus daiteke, bi taldeek adierazten baitute lagun ezak uztera eraman dezaketenaren aukera (focus groupeko neska batzuen kasuan haien errealitatea ere izan delarik) batetik, eta entrenatzailearen jokabidearen eraginarena bestetik. Honetan aspektu oso antzekoak izan dituzte kontuan, biek hala biek honen eragina gozamenean jartzen baitute, batzuek giro txarra edo oihiak bezalakoak identifikatuz eta konfiantza edota animoak bezalakoak besteek.

Hortaz, badirudi antzekotasun ugari daudela ondoriozta daitekeela, beti ere egon daitezkeen ezberdintasunak ahaztu gabe. Honek adierazi dezake egon badagoela orokorrean neskei eragiten dieten faktore komun batzuk, eta hauez gain egoera bakoitzean eta norbanakoari modu ezberdinean eragiten dioten beste batzuk, hala nola, inguru naturala, eskaintza mota edota baliabidea.

6. EKARPENA: ESTRATEGIEN DISEINUA

Neska hauen hitzak hizpide izanik eta egoera honen kudeaketa nire erantzukizuna balitz nesken gozamen eta sustapena ardatz izango luketen estrategia ezberdinak proposatuko nituzke. Azken batean, helburutzat mugatzaile izan daitezkeen faktore horiek hautemanda hauei aurre hartu eta irtenbide ematea izango da batetik, eta neskek positibotzat jotzen dituztenen indartzea bestetik. Hauek lirateke gehiago garatu beharreko estrategien ideia orokorrak:

6.1. Eskaintza estrategiak

1. Kirol aniztasun programaren sustapenerako estrategia.

Neska hauek positiboki baloratzen duten zerbait izanik halakoa eskaintzearen aldeko apustua egitean datza. Euren artean ezberdinak diren kirolak hautatuko lirateke (ezagunenetatik ezohikoetara eta globalizatuetatik geureetara). Estrategia honetan eskaintza sortzeaz gain hedatze kanpaina burutu beharko litzateke, haur eta gazteek honen berri izan dezaten. Kirol ezberdinen ezagutza eta jardutearekin, batetik nork bere kirol esparrua aurkitzea, eta bestetik, guztiek kirolaren inguruko jakintza zabalagoa izatea bilatu nahiko dira, kirol jardueraz gozatzen duten bitartean.

2. Batasunean jarduteko eskaintzaren sortze eta sustapenerako estrategia.

Ahal den heinean neska zein mutilak batera aritzea baimentzen duen eskaintza egitean datzana. Bertan, are positiboagoa izango litzateke jokalaria guztien partaidetza orekatua bermatuko balitz (minutu eta zatiekin egin ohi den bezala jokoarekin ere nolabait egitea). Honetarako agian pase kopuru edota jaurtiketen inguruko aldaeraren bat sar liteke kirolaren barne logika asko baldintzatu gabe guztien partaidetza eta gozamena bilatzeko asmoz.

6.2. Harreman estrategiak

3. **Herrikide zein eskualdekoen ezagutza estrategia.** Inguruko herrietakoekin egiten diren partidak mantentzeaz gain harremanak gehiago sustatzeko kanpainak proposatzean datza. Modu honetara bi helburu nagusi bermatu nahirik:
 - a. Inguruko herrietako adin bertsuko gazteek elkar ezagutzea (hauetako hainbat etorkizunean klase-kide ere izan daitezkeela jakitun harremanen sorrera aurreratzea)
 - b. Norbanakoaren gertuko lagunik animatu ezean inguruko beste ezagun-lagun berri taldearen osatze lanean laguntzea kirol ibilbidea jarraitzeko modua ahalbidetuz. Hau da, jarraipena eman nahian dabiltzan baina elkar ezagutzen ez duten herrikide nahiz aldameneko herrietakoekin saretzean baliabideak eskaintzea.

4. **Zentroen arteko komunikazio estrategia.** Honetarako, lehenik haur eta gazteei dagoen eskaintzaz ohartarazi eta interesa dutenek zentroaren bitartez egoera kudeatzea litzateke asmoa (gorputz hezkuntzako irakaslearen bitartez agian). Honekin bakarka izen-eman eta lekualdatzeak sor dezakeen muga gainditu nahiko litzateke herri mailan interesa dutenen artean komunikazio-bidea sortzearekin bat.

5. **Lekualdatzeetarako harrera estrategia.** Behin herriko eskaintza amaitzen denean eta aldameneko herrira joaten direnerako harrera planak martxan jartzean oinarrituko litzateke. Aldameneko herriko klub ezberdinekin harremanetan jartzea neska gazteak izan dezakeen lotsari, zailtasunei, egonezinei... irtenbide eman eta hauen talde egokitzapena errazteko.

6.3. Kontzientziazio estrategiak

6. Neska kirolarien kasuen difusiorako estrategia. Kirol ezberdinetan jarduten duten herri eta bailarako nesken bizipenak lehen pertsonan ezagutzera ematea neska gazteenen partaidetza suspertu nahian. Proposamen gisara zentroetara egoeraren azalpen teorikoa eta jardute praktikoaren nahasketa moduko formatua egokia izan liteke, lehenik errealitatea ezagutu eta ostean frogatzeko.

7. Hausnarketa-giden estrategia. Hauekin guraso eta entrenatzaileei eragin nahi izango zaie, neska hauen arabera garrantzia duten bi alderdiri. Gida hauetan euren alaba zein taldeko neskek gustuko dituzten jokabideak adieraziko dira (neska gehiagoren iritziak bildu beharko lirateke ikuspegi zabalagoa eman nahian), hauen jakitun izan eta behin honela hauek daukaten jokabidearen inguruan hausnartu eta hala ikustekotan egokitzapenak egin ditzaten. Alaba zein taldeko neskak gustura egotea nahiko dutela suposatuz, hauek baloratutako jokabidearen berri izan eta honetara gerturatzeko ahalegintzea izango da estrategia honen helburua.

- Gurasoen kasuan sakondu beharreko kontzeptuak:
 - Partida unean arreta bereganatzea gustuko izatea
 - Partiden feedback-a gustuko izatea
- Entrenatzailearen kasuan sakondu beharreko kontzeptuak:
 - Taldearekin ondo moldatzea
 - Animatzea
 - Jatorra izatea
 - Arreta eskaintzea
 - Konfiantza ematea
 - Zalantzen aurrean prestutasuna azaltzea

7. LANAREN MUGAK

Lan hau burutzerakoan izandako muga nagusia aurrez aipaturiko lagina hautatzearena izan da. Hasiera batean kimutik haur kategoriara bitarte utzi eta jarraipenik eman ez diotenak hautatu nahi izan arren, egoerak eta herri jakin batean burutu nahiak hau birmoldatzea suposatu du. Halere, finkatutako helburu beretara iristea lortu da galderak egokituz, beraz, hasieran muga izan zitekeenari aurre-egin eta datu esanguratsuak lortu dira.

Honez gain, Foru Aldundi bakoitzak bere lurraldeko eskola kirola kudeatzeko duen malgutasunak partaidetza datuak modu ezberdinean antolatzeke aukera ematen du, eta honen aurrean parekatzerako unean lan gehigarri bat egin behar izan da elkarrekin alderatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko tasa adierazteko.

8. ETORKIZUNeko LAN ILDOAK

Lan hau burutu ostean, eskola kirola modu globalean, eta neskena bereziki, hauetan dagoen partaidetza dela eta gehiago aztertu beharreko gaia dela dirudi. Bertan, geure haur eta gazteenen kirol praktika sustatzeko asmoz positiboa izan liteke errealitate hauek sakonago aztertzea. Aurreko orrietan adierazi bezala, hemen aztertutakoa Gipuzkoa barnealdeko ia 6.000 biztanleko herriko bost nesken errealitatea izan da, baina interesgarria litzateke etorkizun hurbil batean herri txikiago zein hirietan eskola kirolaren inguruko analisia egitea. Analisi honetan ere lurralde bakoitzaren berezko ezaugarriak (masa sozialaren banaketa, ingurune geografikoa, baliabideak,...) euren eragina izan dezaketenez, analisia egoerara aplikatu beharko litzateke, ostean errealitate ezberdinetatik jasotako ondorioak komunean jartzeko. Hau eginik, ildo bera jarraituko luketen ezaugarriak identifikatuko lirateke batetik, leku ezberdinak izan arren modu orokorrean eragiten duten aldagaiak, eta tokian tokikoak bestetik (aipatutako herri txiki zein hirien arteko ezberdintasunak kasu).

Errealitatea bertatik aztertzearekin neska-mutilek mantendu zein aldatuko lituzketen elementuak ezagutzea lortuko litzateke, behin hau jakinik programa eta eskaintza ahal den heinean honetara bideratzeko. Modu honetara euren behar eta gustuen araberako eskaintza izanik errazagoa izan daiteke partaidetzarekiko izan dezaketen atxikipena lortzea, eta baita, kirol jarduteari jarraipen ematea.

Beraz, hau guztia esanik, interesgarria dirudi eskola kirolean parte hartzen dutenen ikuspegiaren inguruko analisisan sakontzen jarraitzea guztion helburu behar lukeen neska-mutilen gozamen eta kirol jarduera eskaintza erakargarriena lortzeko asmoz.

9. ERREFERENTZIAK

Abanda, Gloria. (1998). *Emakumea eta kirola Euskadin: Bihotzen pilpira* (1st ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Aktibiliko Batzorde Koordinatiboa. (2011). *AKTIBILI: Jarduera Fisikoa sustatzeko estrategiak eta proiektuak*. Hemendik jaso: http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/aktibili/eu_aktibili/adjuntos/Jarduera_fisikoa_sustatzeko_estrategiak_proiektuak.pdf

Aktibiliko Batzorde Koordinatzailea. (2011). *AKTIBILI: Ekintzarako Esparrua*. Hemendik jaso: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/aktibili/eu_aktibili/adjuntos/ekintzarako_esparrua_1_0.pdf

Arruza, José Antonio; Aldaz, Juan; Arribas, Silvia eta Gil de Montes, Lorena. (2009). *Hábitos de práctica de actividad física y deportiva de las mujeres adultas guipuzcoanas en la sociedad contemporánea*. Donostia: KirolBegi Gipuzkoako Kirol-Behatokia. Hemendik jaso: http://www.kirolbegi.net/docs/reports/MPAFYD_09.pdf

Arruza, José Antonio; Arribas, Silvia; González, Oscar; Telletxea, Saioa; Fernández, Luis; Arruza, Aritz eta Zatika, Uxue. (2002). *Motivos de participación y causas de abandono de la práctica físico-deportiva en jóvenes de Gipuzkoa de 15-18 años*. KirolBegi Gipuzkoako Kirol-Behatokia. Hemendik jaso: <http://www.kirolbegi.net/docs/reports/HABITOS.pdf>

Azurmendi, Ainhoa. (2011). *Emakume eta gizonen egoeraren diagnosia eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan*. Donostiako Udala. Hemendik jaso: [http://www.donostia.eus/info/ciudadano/igualdad_plan.nsf/vowebContenido/sld/0D1DA3B73894FEB1C1257A0D00303A49/\\$file/TxostenaDonostiaKirolaBerdintasuna.pdf](http://www.donostia.eus/info/ciudadano/igualdad_plan.nsf/vowebContenido/sld/0D1DA3B73894FEB1C1257A0D00303A49/$file/TxostenaDonostiaKirolaBerdintasuna.pdf)

- Caracuel, José Carlos eta Arbinaga, Félix. (2010). Repercusión del ejercicio físico sobre la salud. *Apuntes de Psicología*, 28(2), 315–328. Hemendik jaso:
- http://www.cop.es/delegaci/andocci/files/contenidos/apuntes_psicologia/vol_28_2/Vol_28_2_13.pdf
- De Hoyo, M., eta Sañudo, B. (2007). Motivos y hábitos de práctica de actividad física en escolares de 12 a 16 años en una población rural de Sevilla. *Revista Internacional de Medicina Y Ciencias de La Actividad Fisica Y Del Deporte*, 7(26), 87–98. Hemendik jaso:
- <http://cdeporte.rediris.es/revista/revista26/artmotivos49.htm>
- De Maria, Javier; Llosa, Andoni; Sergio, Carlos eta Calleja, Julio. (2014). *Heziki: Bizkaiko kirolerako kirol bat*. Bizkaiko Kultura Saila.
- Departamento de Empleo y Políticas Sociales. (2015). *Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo 2015-2020* (1st ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jaso:
- http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051715&N_EDIC=0001&C_IDIOM=es&FORMATO=.pdf
- Departamento de Salud. (2013). *Encuesta de Salud de la CAV 2013*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jaso:
- http://www.euskadi.eus/contenidos/nota_prensa/prensa_salud_366/es_salud/adjuntos/salud.pdf
- Diaz, Keith M.; Booth, John N.; Calhoun, David. A.; Irvin, Marguerite. R.; Howard, George; Safford, Monika M., ... Shimbo, Daichi. (2014). Healthy lifestyle factors and risk of cardiovascular events Healthy Lifestyle Factors and Risk of Cardiovascular Events and Mortality in Treatment-Resistant Hypertension: The Reasons for Geographic and Racial Differences in Stroke Study. *Hypertension*, 64(3), 465–471.
- <http://doi.org/10.1161/HYPERTENSIONAHA.114.03565>

Diputación Foral de Gipuzkoa. (2005). *Plan de fomento del deporte entre los 12 y los 18 años*. Diputación Foral de Gipuzkoa. Hemendik jaso: www.kirolzerbitzua.net/documentos/05_01_PDJ_febrero_20051.doc

Dirección de Deportes-Departamento de Cultura. (2009). *Encuesta de hábitos deportivos en la CAPV*. Bilbo: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jaso: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-714/es/contenidos/nota_prensa/kirol_ohiturak_inkesta/es_kultura/adjuntos/Encuesta_habitos_deportivos-es.pdf

EMAKUNDE: Emakumearen Euskal Erakundea. (2012). *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa. Kirola*. Hemendik jaso: http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren/contenidos/informacion/ipp_adm_general/eu_emakunde/adjuntos/EIG_TXOSTENA.pdf

Gazteen Euskal Behatokia. (2013). *Eusko Jaurlaritzaren III Gazte Plana 2014-2016*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jaso: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/berria_3_gazte_plana_onartuta/eu_def/adjuntos/III_gazte_plana_e.pdf

Gil, Pedro; Cuevas, Ricardo; Contreras, Onofre. R., eta Díaz, Arturo. (2012). Educación Física y hábitos de vida activa : percepciones de los adolescentes y relación con el abandono deportivo. *Aula Abierta*, 40(3), 115–124. Hemendik jaso: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3994659.pdf>

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza. (2016, Apirilak 26). Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua. Hemendik jaso: <http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/lurralde-kontseilua>

González, Ángel. M., eta Otero, Montserrat. (2005). Actitudes de los padres ante la promoción de la actividad física y deportiva de las chicas en edad escolar. *Cuadernos de Psicología Del Deporte*, 5(1-2), 173–195. Hemendik jaso: [https://digitum.um.es/xmlui/bitstream/10201/27798/1/Actitudes de los padres ante la promoción de la actividad física y deportiva de las chicas en edad escolar.pdf](https://digitum.um.es/xmlui/bitstream/10201/27798/1/Actitudes%20de%20los%20padres%20ante%20la%20promoci3n%20de%20la%20actividad%20f3sica%20y%20deportiva%20de%20las%20chicas%20en%20edad%20escolar.pdf)

Hezkuntza- Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Osasun Saila. (2013). *MUGIMENT Basque Country: Gizarte aktiboagoa sortzeko proiektua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jaso: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-518/eu/contenidos/normativa/mugiment/eu_10198/eu_consejos_comites.html

Isorna, Manuel; Ruiz, Francisco eta Rial, Antonio. (2013). Variables predictoras del abandono de la práctica físico-deportiva en adolescentes. *CCD*, 8(23), 93–102. <http://doi.org/10.12800/ccd>

Janssen, Ian eta LeBlanc, Allana. G. (2010). Systematic review of the health benefits of physical activity and fitness in school-aged children and youth. *The International Journal of Behavioral Nutrition and Physical Activity*, 7, 40. <http://doi.org/10.1186/1479-5868-7-40>

Juan, Santiago eta Roussos, Andrés. (2010). *El focus group como técnica de investigación cualitativa* (Vol. 254). Buenos Aires: Universidad de Belgrano. Hemendik jaso: http://www.ub.edu.ar/investigaciones/dt_nuevos/254_Roussos.pdf

KirolBegi: Gipuzkoako kirol-behatokia. (2016, Urtarrilak 11). Gipuzkoako Eskola Kirola Programaren Parte-hartze Datuak. Hemendik jaso: <http://info.kirolbegi.net/escolar/gipuzkoa>

Kultura Saila. (2003). *Kirolaren Euskal Plana 2003-2007* (1. ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jaso: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-714/eu/contenidos/informacion/plan_deporte_2003_2007/eu_6112/plan_deporte_e.html

- López, Pilar. (2011). *Deporte y mujeres en los medios de comunicación: sugerencias y recomendaciones*. (Consejo Superior de Deportes. Presidencia de Gobierno, Ed.). Madril: Consejo Superior de deportes. Hemendik jaso: <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/detalle.action?cod=14798>
- Manrique, Marivi eta Rojo, Arantza. (2002). “ *ITXASO* ” *Proiektua. Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteak kirol praktika uztera eramaten dituzten zergatiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Hemendik jaso: <http://www.kirolarte.net/adminkirolarte/material/TXOSTENALABURPENAITXASOeusquera.pdf>
- Moreno, Silvia. (2014). *Factores que influyen en la práctica deportiva y causas de abandono deportivo de la población adolescente*. Universidad Zaragoza. Hemendik jaso: <http://zagan.unizar.es/record/16907/files/TAZ-TFG-2014-2122.pdf>
- Mutiloa, Patxi; Estébanez, Mercedes; Zuazagoitia, Jon; Ayo, Josu; Lizarraga, Kepa; Gómez, Francisco eta Iturrioz, Iñaki. (2011). *Plan Vasco de Actividad Física. Marco para la Acción*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Oinkari Dantza Taldea. (2016, Maiatzak 3). Oinkari dantza eskola. Hemendik jaso: http://oinkari.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=59&Itemid=80&lang=eu
- Organización Mundial de la Salud. (1946). *Constitución de la Organización Mundial de la Salud*. Hemendik jaso: <http://www.ehu.es/ceinik/tratados/1TRATADOSSOBREORGANIZACIONESINTERNACIONALES/13AgenciasEspecializadas/OI137ESP.pdf>
- Organización Mundial de la Salud. (2014). *Constitución de la Organización Mundial de la Salud*. Hemendik jaso: <http://apps.who.int/gb/bd/PDF/bd48/basic-documents-48th-edition-sp.pdf?ua=1#page=7>

Organización Mundial de la Salud. (2016, Otsailak 14). Obesidad y sobrepeso.
Hemendik jaso: <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs311/es/>

Osasun Saila. (2014). *Euskadiko Osasun Politikak: Osasun Plana 2013-2020* (2nd ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Hemendik jaso: http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpubl01/es/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/es_public/adjuntos/plan_salud_2013_2020.pdf

Piéron, M., eta Ruiz-Juan, F. (2013). Influencia del ambito familiar e iguales en los habitos fisico-deportivos de los jovenes. *Revista Internacional de Medicina Y Ciencias de La Actividad Fisica Y Del Deporte*, 13(51), 525–549. Hemendik jaso: <http://cdeporte.rediris.es/revista/revista51/artsocializacion385.pdf>

Ponce De León, Ana; Valdemoros, M^a Ángeles eta Sanz, Eva. (2010). El influjo educativo de los profesores en el abandono de la práctica físico – deportiva de los adolescentes. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación Del Profesorado*, 13(4), 211–220. Hemendik jaso: http://aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1291993254.pdf

Telama, Risto; Yang, Xiaolin; Viikari, Jorma; Välimäki, Ilkka; Wanne, Olli eta Raitakari, Olli. (2005). Physical Activity from Childhood to Adulthood. *American Journal of Preventive Medicine*, 28(3), 267–273.
<http://doi.org/10.1016/j.amepre.2004.12.003>

Thurston, Miranda eta Green, Ken. (2004). Adherence to exercise in later life: how can exercise on prescription programmes be made more effective? *Health Promotion International*, 19(3), 379–387.
<http://doi.org/10.1093/heapro/dah311>

Viñas, Jordi eta Pérez, Marta. (2011). *Los hábitos deportivos de la población escolar en España*. (Consejo Superior de Deportes. Presidencia del Gobierno, Ed.). Consejo Superior de Deportes. Hemendik jaso: <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/los-habitos-deportivos-de-la-poblacion-escolar-espanola-estudio-/deporte-en-edad-escolar/14797>

Vizcarra, M^a Teresa; Macazaga, Ana M^a eta Rekalde, Itziar. (2009). *Eskolako kirol lehiaketetan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua.

Warburton, Darren E. R; Nicol, Crystal Whitney eta Bredin, Shanon S. D. (2006). Health benefits of physical activity: the evidence. *CMAJ: Canadian Medical Association Journal = Journal de l'Association Medicale Canadienne*, 174(6), 801–809. <http://doi.org/10.1503/cmaj.051351>

125/2008 Dekretua. (2008, Uztailak 1). Eskola kirola. Gasteiz: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Hemendik jaso: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/07/0804270a.pdf>

03/059/2014 Foru Agindua. (2014, Ekainak 20). 2014-2015 ikasturteko eskola kiroleko jardueren programaren onarpena. Donostia: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. Hemendik jaso: <http://www.kirolzerbitzua.net/adminkirolak/eskolakirola/docseskolakirola/14%20G.A.O%20eskola%20programa%202014%20-%202015.pdf>

10. ERANSKINAK

10.1. 1. Eranskina: 2016/04/28 FOCUS GROUP (Audioaren itzulpena)

Moderatzailea (M)- Lasai egon zaizte, Bueno, eguerdi on, gaur apirilaren 28^a deu 2016koa, eta bueno, hemen elkartu gea alde batetik ni, bueno, eee... antolatzen attuko naizena Jon Amiama eta bueno, gero elkartu ditteu bost neska focus groupa itteko. Bertako bat lehen mailakoa da eta beste lauak bigarren mailako neskak lirateke. Bertan, (lasai eon zaite), bertan ba oi, eskola kirolen arittuk dia eta batzuk utzita daukate eta beste batzuk ba bueno, beste kirol praktikaren batekin, beste kirol praktikaren batekin jarraitu dute. Eta bueno, euren bizipenak kontatuko dizkigute.

M- Bueno, lehenik eta behin, bueno, zenbagarren mailan hasi zineten edo gogoratzen dezue?

Eeee (entzuten da)

M- hori da (beste batek zenbakia esateko baitio)

4Partaidea (4P)- eee... eske enaiz gogoratzen

M- adibidez benjamina zan o LH...

3P- hirugarren mailan

M- hirugarren mailan

1P-hirugarren mailan

M- baita? Lehenengoak ere hirugarren mailan

2P- hirugarren mailan o bigarren mailan

M- aham.. (baieztapena)

5P- ebai

M- bost ebai hirugarren mailan

5P- oida

4P- ebai

M- bale, osea orokorrean hirugarren mailan hasi zineten, eta zerk bultzatu zizuen edo? gogoratzen dezue edo...

5P-emm... kirola gustatze zait ta sin mas, zeon aukera ba horreatik aprobetxatu nun

M- aprobetxatu zenun sartzeko, aham...(baieztapena)

4P- ba, probatzeatik

M- probatzeatiken

3P- korrika itea gustatze zitzaitelako

M- aham... (baieztapena)

1P – ee... lagunak animatu in zidatelako

M- aham... (baieztapena)

2P- kirola asko gustatzen zaidalako ta aukera ona pentsatzen nulako izango zala

M- aham... eta gero, zenbagarren mailan utzi zenuten? Eskola kirolari daokionez

3P- seigarren mailan

M- seigarren mailan

2P- seigarren mailan

M- seigarren mailan ebai

1P- Seigarren mailan

M- seigarren mailan

4P- ni seigarren mailan

5P- bosgarren mailan o ola, ya bukatu zanen, ze ee.. gero hasi zian ee.. futbol eskola hasteko ta oi (2P- a bai, egia) ba futbol eskolan hasteko segi in behar zala ta ordun ya (2P- bai) nik uste danak desapuntatu in ziala ta ordun ni re desapuntatu in nitzan

M- osea jendeak utzi in zun futbol eskolan hasteko

4P- debai

5P- bai, osea, futbol eskolan hasteko rebai eon behar zan, osea apuntatuta eon behar zan kirolen, baino inor ez zan animatzen ola nesketan da ola, pues ordun, ni re desapuntatu in nitzan bosgarren mailan

M- osea, azken baten lagunek utzi zutenez ez

5P-bai

M- ez zenekalako beste inor animatzeko

5P- animatze zianik

2P- rebai ustet bosgarren mailan izan zala, eo seigarren mailan, ta utzi nun zeba... zeba... lagunak debai desapuntatu in zian, ordun...

M- aham... (baieztapena), oso ondo, bai, hoi da berandugo landuko degun puntu bat asike oso ondo. Eta gero, behin hoi utzita jarraitzen dezue zuen kabuz zerbaitetan? Osea, bai modu antolatu zein antolatu gaben e

2P- eee... dantzan hasi nitzan

M- dantzan hasi, aham...

1P- futbol en ta halterofilian

M- aham...

(irakasle bat entzuten da: ai, barkatu hemen zaudete... , bale barkatu. M: lasai lasai.)

5P- eee... ni txikitatikan ya ba dantzan neon ta segitzet dantzan osea ta...

M- aham...

5P-... dantzaz aparte ibili nitzan baino segi itet oaindikan

3P- atletismon

4P- ni txikitatik dantzan hasi nitzan baino, seigarren mailan o ola, ustet seigarren mailan, utzi nula ta gero wu-shu-n hasi nitzan baino ebai utzi in nun ta uain bizikletan ai naiz nire kontutik

M- aham... oso ondo, asike eskola kirola ordun etzan izan zuen puntu bakarra baizik eta gero rebai jarraitu dezuela nolabatte bai dantzan zein gero zuen kabuz

(baieztapen orokorra: aham...)

M- oso ondo, bueno ba ordun orain lau bloke egongo dia eta oain lehengoai ekingo diou. Lehenengoa **eskaintza** litzake. Eskaintza, adibidez, nire kasun ni eon nitzanen, benjamina nitzanen, hau da LH 3-4en ibili nitzanen, geneuzkan hiru kirol, ez?, saskibaloia, areto futbola eta eskubaloia (nesken baieztapenak: aham... eta bai) eta gehien bat hiru hoiek zien, eta gero noizbait igual beste kirolen bat itte genun baino orokorren (aipamenen bat) hori da, baino orokorren hiru hoiek. Zuen kasun ere ola, eskaintza modu hortara...

1P- bai

2P- bai

3P-bai

4P-bai

M- bai ez?

(baieztapen ezberdinak)

M-aham... orokorren ordun hiru kirol nagusi eta gero, ba noizbenka puntual batzuk

2P- ee... izate zien batzutan atletismoko probak ta ola ite ___(4:24) (5P- hoi da), enaiz oso ondo goatzen, gero ping pong, ta ez dakit...

5P- juten ginan ola, Tolosara ta ola pruebak itea, ping-pong-en ibiltzen ginan eee... pelotan ebai ta ola, asteburu batzutan diferentea izate zan, baino normalen futbola ta ola izate zan

M- eta, orokorren, osea, gustoko dezue eskaintza mota hoi?

1P- bai

2P- bai

4P- bai

3P- bai

5P- ere bai

M- osea, orokorren nahiago dezuela kirol modu desberdinak egin, ez?, hirutan zentratu baino?

2P- bai, zeba bestela denbora guztin iguala iten igual pixkat aspertu o ola ite zinan ta ordun...

M- aham...

2P-... diferentek probatzen pues...

5P- eee... nei kirol batzuk gehio gustatzen zitzaizkian beste batzuk baino, adibidez nei baloncestoa ez zitzaian gustatzen asko, ordun gehio gustatzen zitzaian besteta pasatzea, diferentek itea re asko gustatze zait.

M- aham...

4P- nei debai

1P- debai

3P- ebai

M- ordun, gaur egun ba ikusten da hemen ere multikirolak edo multiekintzak bezelako zeak daudela, e eskaintzak, eta ordun hoiek iruitze zaizue neskantzako, osea zuen egoeratik positibo bezela ez?

(baieztapen orokorra)

M- aham... ados, eta kirol ezberdin asko praktikatzeko aukera ordun izan dezue?

1P- bai

M- bai ezta? Orokorrean...

4P- bai

5P- ebai

M- aham... bale, gero debai eskaintzan gure garaien benjaminetan iten zan mutilak eta neskak batera, eta gero hortik aurrera zan mutilak alde batetik eta neskak bestetik. Hoi nola ikusten dezue? Beno, zuen kasun ere hola izan da?

1P- eee... ni goatze naiz ez dakit zenbagarren mailan eee... neskak ez zeuden apuntatuta, ustet seigarren mailan zala, ta ordun eee... mutilekin jarri ziguten , osea ni ta beste lagun bat (M- aham...) ta mutilekin jun ginan.

M- ondo, baino bestela, eta hoi ondo ikusi zenun edo?

1P- bai, bastante ondo

2P- banaketa aber ondo, osea aber mutilak alde batetikan eta neskak bestetikan aber ondo iruitze zaigun?

M- bai, osea, benjaminetan da mutilak neskekin batera (2P- bai) eta gero ya hasten da banaketa, eta aber hoi nola ikusten dezuten

2P- nei ez zait ondo iruitzen zeba nik ustet eee... denak batea, osea denak batea izan beharko zien, porke hola ez zan diferentziaikan ikusten

M- aham... besteok?

5P- eee... nei ebaita, ze azkenen eee... denak batea ibiltzea, igualak gea, osea, ez dakit, baino gero rebai txikitan asko pasatze zan mutilak ez zuela pasatzen ta ola (2P eta 4P- ya...). Askotan pasatzea ze gehiegi "txupatzue" ta ola, ordun neskak ebai asko kejatzen gea, baino nik nahiago det denok batea ibiltzea.

M- aham...

4P- nire ustez ebai

M- asike, bosgarren eta seigarren mailan egongo balitz eskaintzaren bat, osea, batera jarraitzekoa iruitzen zaizue positiboa litzekela edo? Jarraitzeko aukera...

(neska guztien baiezkkoa)

M- aham... oso ondo, gero eee... orokorrean ba... astean zehar itten zenuten entrenamentu bat eta partidua ez?

(nesken baieztapen orokorra)

M- eta bietan, orokorrean, zertara juten zineten gustorago? Entrenatzera? partidetara? Bietara berdin?

1P- partiduta

5P- partiduta

2P-partidota

4P-partiduta

M- partidutara gustorago?

3P- nik nola enun futbola iten, pues, enitzan juten

M- jajaj... aham... osea, orokorrean gustora joaten zineten? Beraz, eta lehiakortasun puntu hori edo gustatzen zitzaizuen? Edo zer gustatzen zitzaizuen partidu egoera hortaz?

2P- bai

1P- gurasok daudelako beidatzen ta ola ta, nose, ondo...

4P- hobeto sentitzen zea

1P- oida, hobeto

5P- atenzioa, osea, zu zea azkenen jokatzan ai zeana ta jendea guztia beidatzen ai zaizuna, ordun nei gehio gustatze zait

4P- pues ondo pasatzezula

1P- lagun berrik iteituzu ta ola

M- aham...

2P- eee... nei partidok gustatzen zitzaizkiten, ze da en plan nahizula irabazi, irabazi... ta guai dao

M- aham... bai, azkenen bakoitzaren zea da ta... ni ere holakoa nitzan e bere garaian asike... Hori da, eta gero partida guztik orokorren benjamin garaien itezian herrin bertan ez?

(Baiezko orokortua)

M- honea gora iyotzen ginan ta, bueno, Fleming A, Fleming B...

(baiezko orokortua)

M- ... orokorren oi gustatzen zitzaizuen edo nahiago zenuten ba igual beste herriren batera mugitu behar hoi... jokatzera ba adibidez, Tolosara edo...

5P- bai, eee... nei gehio gustatze zitzaian munitzea hola Asteasua ta Zizurkilea, hola jende desberdinen kontra jokatzeku, zeba azkenen Fleming A Fleming B denak ezaunak gea, bueno, ordun klasen bezela, osea soinketan bezela, baino Asteasukokin ta ola ez deu jolasten, ordun... ondo eote zan

1P- e bai

2P- nei gehio gustatzen zitzaiten ba eee...herri desberdineta munitzea ba ez denbora guztin berdinen kontra jolasteko, osea, jende desberdinekin jolasteko ta ola...

4P- debai

3P- nik e bai

M- azken baten igual lagun berriak iteko edo ez?

2P- bai, iteko

4P- bai

M- modu bat edo...(1P- ezautzeko ta ola)...iruitze zaizue?

1P,4P-bai

M- aham... eta gero... aham... eta gero, hori da, eee... bai hori, aipatu dezuna, bai LH 5 eta 6an, ez? Zailtasuna dagola neskan talde bat sortzeko eta zure kasuan, lehenengoaren kasuan ba hori, bi neska pasa zirela mutilekin jokatzera. Eta zailtasun horren barrun beste aukera edo izaten da aldameneko herrira edo joatea, ez?

1P- bai

M- tolosara edo...

5P- bai

M- hori iruditzen zaizue joateko zailtasuna edo oztopo bat dala? Herri batetik bestera mugitzea edo...

1P- pos, nose... eee... lotsa pixkat, nola denak... osea, ez dituzu ezautzen inor, pues nose, pixkat lotsa

5P- ni adibidez, netzat bai, ze azkenen maitu in beazu zuk naizuna iteko, ta ni eee... aurten ta ola eon naiz ba eee... balonmanon ta apuntatzeko ta adibidez, pues astean zehar ez maitzeatikan ze Villabonan eongo balitz eee... talde bat ba ni jungo nitzan apuntatuta baino, nola ez daon, pues maitzea asten zehar ya gehiegi iruitze zait, ya gauz gehiegi dazkat ta ordun maitzea re gehiegi da

2P- ni, osea leno Villabonan zeon gimnasia ritmika iteko ta... ee... ordun ya bukatu inzan ta nik nahi nun segi, baino Tolosaino jun behar nintzan ta entre ke ikasketak ta gero maitu in behar zeala pues azkenen denbora kentzeizu

3P- ni leno ibiltze nitzen atletismo eskolan, Otañon, ta oain nola bukatuan, ez daon, pues oain Tolosa jute naiz, ta ondo

M- aham... baino igual errexagoa litzake zure herrin bertan eongo balitz ez?

1P,5P- bai

M- osea, azkenen asko gustatzen zaizun zerbait da atletismoarena ta ordun bai jun zeala Tolosara, baino bestela igual zalantza izango zenun ez? Edo?

3P- bai, onbre, ba nire herrin bazeon ba hobeto, baino...

M-...hobeto...

4P- ite nun wu-shu leno ta Villabonatik Udalak lokala itxi zien ta oain Tolosaino ez juteatik, pues... ya utzi in nun

M- aham... eta lagunen bat animatuko balitzaizu Tolosara joateko?

4P- jungo nitzake

M- jungo zinake

4P- jungo nitzeke

M- aham... ados, ba orain ba bigarren blokea, **beste zereginak** ba aipatu dezuna, ez? (2P.ari begira) etxeko lanak eta, ze zailtasun egon daitezkeen batzutan... eta bueno, extraeskolarrei dagokionez, azkenen jakina da ba igual ingelesa, musika, dantza... beste desberdin batzuk ere badaudela zentzu hortan, zuek bazenituen? Hola eskola kirolaz gain beste extraeskolarrrik edo...

5P- bai...

M- eskola kirolean zenbiltzaten garai hortan e

5P- bai, ni ibiltzen nitzan dantzan, musikan ta... ta ustet hola, ta deporte eskolarren, ta besteik ez

4P- deporte eskolarren ta dantzan

(zurrumurruan: 5P- ta katekesis, 4P- a, ta ketekesis)

3P- deporte eskolarren ta inglesen

M- aham...

1P- eee... deporte eskolarren, ta zean... igeriketan, pistinan

2P- deporte eskolarren ta igeriketan debai

M- aham... eta horrek mugaren bat edo sortu zizuen denbora aldetik?, ba igual esan, “bueno, lehenasuna eman beharko diot denboraz larri nabilelako eta bueno, ba igual eskola kirola utzi in beharko det edo kirola uzteari” edo denak maila berdinean kokatzen dituzue?

1P- ni goatze naiz deporte eskolar ez dakit ze egunetan geneukala ta debai justo debai pistina nekala ta nola, ustet astian behin ite zala deporte eskolarra, ordun deporte eskolarrea juten nitzan ta igeriketa pues hurrengo egunen

5P- eee... ni bai, osea, denbora aldetikan ee... amak esaten zian gauza gehiegi nezkala ta azkenen ba deskartez edo kendu nun deporte eskolarra... rebai lagunak utzi zuelako, osea, eztakit...

M- aham... baino, adibidez, oi, aipatu dezu amak esan zizula, baino esan zizun zein, zenezkan hoietatikan zein utzi edo esan zizun denea etzea iristen zuk erabaki zein utzi

5P- bai bai bai, ez ez,

M- erabakia zure esku utzi zun

5P- bai bai nire esku, osea...

M- ta gero oi, aipatu dezuna, lagunangatikan ta ola...

5P- bai, oida

M- aham... beno, gero debai, dantza taldea, denok ezautuko dezue ez? Herrin dagona eta...(baiezkoak)... eta zuen inguruko jendek eskola kirolea sartu beharren dantzara, dantzara sartzeko pausoa edo eman du? osea, jendea ezautzen dezue?

2P- bai

M- eskola kirolea sartu beharren esan:” jo, beida, hemen sartu beharren ba dantzan sartuko naiz” edo...

1P- ez

3P- ezta

5P- nik ustet ee... ya txikitatikan mutilak direktamente deporte eskolarrea jute diala, mutilak ez dia asko ikusten mutilak dantzan. Osea, ikusteituzu igual bi o hiru ola gure edaderekok ta txikitatik hasteyanak, amak ta sartzeyena, baino, gehienak ya denak futbolea eo deporte eskolarrea dijoazte

M- aham... eta nesken kasun, baten bat ezagutzen dezue eskola kirola etzaiona gustatzen bezela eta dantzara sartu dena kirola iteko edo hola...

5P- bai

2P- bai

M- ... ta komentau dizue hola arrazoiren bat edo, "beida (2P- ez) ez zait hau gustatzen hemendikan ta bueno..."

2P- ez, ze nahiago zun dantza jun ta yasta ustet

M- ados, eta gero hori, ee... denbora falta, etxeko lanei dagokienez, kirola iteko denbora kendu dizue? Iruditzen zaizue edo...

2P- aber, leno txikitan ez genuen asko iten eskolan (4P- ya...), osea ez zan asko ikasi behar, baino gero ya oain (1P,4P- oain bai), nola kixton etxeko lan pila dauzkaun ta oi pues bai

1P- oain bai, ze oain nei adibidez eee... nei bai kentzeitela denbo asko ikasteko ta ola, ta, pues batzutan agobiatu ite naiz ta ola

3P- nei rebaita

4P- nei ebaita

5P- osea nei kentzeit baino azkenen planifikatzen bazea nei denbora emateit denetako, osea, eztakat re ez gauza asko, asike nei sin mas...

M- aham... eta zuen kasuan adibidez, eee... etxeko lan gutxigo egongo balitz iruditzen zaizue kirola iteko denbora gehiago eskaintzeko modun zeundeketela ta gehiago eskeiniko zeniekela?

(azkar erantzunez: 2P- bai, 4P-bai, 1P- bai, 5P- bai, 3P- ebaita)

M- bai? Asike, muga bezela iruitzen zaizue orokorren lehentasuna ematen diozue etxeko lanak iteai etxeko lanak bukatuta ordun ikusten dezue aber denbora daukazuen edo ez kirola iteko (4P-bai), lagunakin egoteko (4P,2P-oida) edo dena delakoa, ezta?

5P- bai

2P- bai

1P-bai

M- ados, bale, hirugarren blokea litzateke **harremanak**. Adibidez, entrenatzaileari dagokionez, bueno orokorren die herrin bertakoak, gaztek (2P,4P-bai) eta beno, eta ze... iruitze zaizue eraginik edo izan dezakela entrenatzailearen paperak?

2P- bai, ze igual entrenatzaileen, osea, ez bazea ondo ematen entrenatzaileekin... osea gustoago jute zea entrenatzaile... osea aber, ondo emate zean batekin gaizki emate zeanakin baino, osea gogo gehio emateizu

5P- nei iruitze zait entrenadoreak animatze baizu, edo zu gehio motibatze zeala edo, ta ordun ba, pixkat... ee... gustogo jute zeala klaseta ta ola

1P- ee.. nik aurten ezautuet futboleko entrenadorea, ta bueno, pos... nei iruitze zait majoa dala ta ola, adibidez ba e.. partida baten futbolen o ola zoze ez bazaizu ateatzen, o ikusteizu gaizki zaudela ba pos animatu iteizu ta... ondo

M- aham... hortaz, ba presioa edo sortzen baizue eo errieta ite baizue edo ola etzeate gustoa sentitzen, ez? (onarpen orokorra)

M- eta, orokorren taldea kudeatzeako garaian, osea denek berdin parte hartzen zenuten? (2P- bai) Edo bazter... osea denak orokorren berdintsu, ez? Tratatzen zizueten

2P- bai

3P- bai

4P- bai

5P- bai

1P- bai

M- aham... eta ordun, eee... aipatu dezuenaren arabera, eee... garrantzia emateyozue entrenatzailearen jarrera eta ezagutza izateari, ez? (2P- bai) osea, (1P,3P,5P,4P-bai), denak ondo tratatu eta bai, azkenen oi, esan dezuena ez, motibazioa eta gustoa jutea

5P- bai, ze azkenen entrenadorea borde bordea baldin bada ta azkenen ez dizu kaso iten ta ola, pues azkenen zu etzea juten gogoz, ordun... beste nunbaiten apuntatzen zea

M- aham...

2P- bai, ze rebai ee.. igual.. entrenadoreak nahiago baitu beste pertsona batzuk zeba zu txarragoa zea pues horrek gogo gutxigo jartzeizu partidotan ta ola, porke bakizu zutaz ez dula konfiatzen bezela, bamos

M- aham... ta ordun talde guztiaren berdintasun bat edo ez (2P- bai) nahiko zenuke ta... aham... (4P- bai). Ados, eta... hurrengoa ba hoi, gorputz hezkuntzako irakaslea. Ez dakit gogoratzen zeaten garai hartan gutxi gora behera (2P,4P-Xabi) zein zenekaten edo? (baiezkoaren aipamena) (4P- Xabi 2P-Bai, Xabi) Eta iruitzen zaizue, osea, bere papera garrantzitsua izan daitekela, ola kirola bultzatzeko ta ilusio aldetikan? Edo...

2P- ez,

5P- re ezta

2P- ez du zertan, osea, zuri gustatzen bazaizu?

5P- osea, azkenen oida,

2P- zuri gustatzen bazaizu, pues, igual balin bazkazu dudak pues zoze aber nola itean igual al diozu galdetu, baino... (4P- bestela ez)... hortako entrenadorea dao, entrenatzailei galdetzen diozu, bestela ez

M- aham...

5P- printzipioz beak azkenen deportek erakusten dizkizu, aber... eee... zuri gustatzen zaizun ta gero segi bezela iteko pues emateizue aukera, baino, nei etzait iruitzen ola... irakasleak... bultzatzeunikan eo, nose...

4P- ebai, hala pentsatset

M- osea, aham...

3P- ni rebai

1P- ni re bai

M- osea, orokorren gertugo ikusten dezuela entrenatzailearen papera irakasleak in dezakeena baino, ez? (baiezko orokortua)

2P- bai

M- aham... oso ondo, eee... gero rebai aipatu dezue laguna edo kideen, ez, garrantzia, (baiezkoekin onarpena), azken baten uzteko edo eragin dezaketelako. Lagun... inguruko lagunek, utzi izana edo tokatu zaizue?

1P- aber, ba ni.. ee... goatze naiz deporte eskolarren esan detena neska oi (M-bai...) ba gero erdialdea eo hola, mas o menos, desapuntatu in zan ta, ni pos aber, neska bakarra nintzan baino, aber, nei gustatze zitzaiten ordun pues ni geatu in nitzan ze nei gustatu ite zitzaiten ordun pues geatu in nitzan

5P- ee... nei adibidez oain ne lagunak dantza utziko bazuen nik segi ingo nun, baino txikitan azkenen, osea... norbait ez balinba dakazu, nola ya oaindikan txikia zean pues azkenen eee.. segi iteyezu zure laguneri (4P-oida), baino ya zoze gustokoa dakazunen ya , pixkat edadea dakazunen haundigoa ba... gustoko horrei segi iteyozu

4P- oida

2P- ee.. nire.. osea ni enitzen hasi txiki-txikitatik dantzan, duela gutxi hasi naiz, ordun nola jendea ta hola pixkanaka gehio ezagutze nun, ba ya nire lagunek ere utziko bazuen nik enuke utziko

M- aham...

4P- nik uste denei pasatze zaigula txikitan hola lagunak desapuntatze badia zuk beti esatezula desapuntatu in nahizula, baino... geo haunditan ikustezu zuk nahizula ta ordun geatu ite zeala, nik uste

M- aham... beraz, hori, ondorio bezela edo iruditzen zaizue dudan baldin bazaude lagunak asko eragin dezaketela, baino behin benetako motibazioa edo benetan gustoko dezun zerbait baldin bada, aipatutako lehen eta bosgarren kasuek aipatu bezela, ez?, behin ya gustoko baldin badaukezu nahiz ta utzi bueno, jarraitzeko aukera edo egon daitekela, ez?

2P- bai

4P- bai

5P-aham..

M- bale eta lagun berrik iteko baliagarri izan zaizue ez? Orokorrean (1P,2P,5P-bai), osea beste ikast.. beno, beste ikastola zein beste herri batzuetako jendearekin harremana sortzeko baliagarri izan dezue?

2P-bai

4P- bai

5P- bai

1P- bai

3P-bai

M- ordura arte ez zeneukaten eta gaur egun hola pixkat igual mantentzen dezue horrengatikan?

2P- bai

1P- ba, ni, aurten apuntatu naiz futbolen ta bueno, jendea rebai, ta nik jendea enun ezautzen ta pues hasieran enun hitzeiten ta ola, baino gero ya entrenamendutan ta ola pos ikusten nun pues pertsona onak ziela ta ola ta, gero kaletikan beste pertsona batzuk emateue ta ola, baino nose... nik uste baietz

M- aham... besteok hola... zentzu berdinen edo?

(baiezko orokorra)

M- bai, ez? Gutxi gora behera... Oso ondo, eta bueno, gurasoena ere aipatu duzue, azken baten partidutara jutea ere ba positibo bezela, ez?, jotzen dezuela askotan juten die partiduk eta ikustea, eta gustuko zenuen baino ze zentzutuan edo? Aipatu dezue oi, zuei beida zeudelako...

2P- eske... itxoin ee...

M- lasai lasai...

5P- nei deporte , osea, gustatze zait ta ordun ba gehio gustatze zait oaindikan jendea beidatzen ai zaitenen, pues gehio... (4P- motibatzen zea)... motibatzen zea ta hola, gustatzen zait ta ordun ba nire gurasok beidatzea gehio oaindikan, osea, ez dakit...

2P- nei gustatzen zitzaiten ba... partidok jokatzen genitunen ta irabazten genunen edo galtzen genunen esatea "joe, super ondo jolastuzu" ta pues, gustatzen zitzaiten

1P- ba ni deporte eskolarren neonen goatze naiz partidoa bukatu ta gero jute nintzan etxea ta aitai esate nion ea ondo jolaste nun, emateko bere iritzia, hola zer nun hobetzeko ta hola

3P- nei gehio motibatzeit gurasok eta animatzea ez animatzeak baino, bestela hor geatze zea como... sin mas, hola...

M- bai, asike orokorren gustoa jute zinan jakinda gurasok eta han zeudela ikuslez edo ikusten edo... (3P- bai) aham... Eta orokorrean, gurasok animatu zaituztete?

4P,2P- bai

M- bai apuntatzerad, jarraitzera bai...

3P- bai

5P- ba azkenen, osea ne amak ez zian esaten “apuntatu benga”, sino papera ekartzen genunen eskolatikan ba nik ya esaten nion “apuntatu naet, apuntatu naet” ta amak ordun esaten zian “ba apuntatu, segi...” ta ezdakit zer. Ordun nik nahi nulako apuntatze nitzan

2P- osea nei esaten ziaten ondo egongo zala apuntatzea ta hola baino nik nahi banun apuntatzen nitzan, osea ez beaiek esate ziatelako apuntatzeko.

1P- eee... ni aurten ebai halterofilian apuntatu naiz ta gurasok animatu ite ziaten ta ola, porke gustatzen zaielako ta hola, ta oain dela gutxi irabazi nun medallak ta hola ta pos esaten ziaten ondo ikusi ziatela ta hola konpetizion ta hola ta...

M- aham... baino medallak irabazi edo ez azkenen (1P-bai, bai) baloratzen due rebai, ez? osea...

2P- jarrera

M-... aipatu dezue hori da (1P- hori da), aber ondo pasa dezun, gozatu dezun, ez?, emaitzetatik haratago baloratzeuela beste zea hori. Eta orokorrean zuen gurasoek egunerokotasun ohitura bat bezela daukea kirola edo jarduera fisikoa iteko edo?

2P- nei esaten dit nire amak ta nire aitak ondo daola kirola itea, ze azkenen ee... osea, egunero ite bazu kirol pixkat pues, forman mantentzen zea ta hola

M- aham... besteok hola...

5P- nei iruitze zait zozer zozer in behar dala, ezin dezula eon extraeskolarrrik gabe ta hola, ta deporte re zozertan apuntatu beazula ta amak ta oi esateigue (4P-oida), behintzat zozertan eon behar geala apuntauta

2P- osea beharrezkoa bezela dala

1P- nei esateyate e, kirola oso garrantzitsua dala hola gorputzantzako ta hola, ta oi...

M- aham... eta behin oi esanda zuek erabaki gustokona dezuena ez?

2P- bai

1P- bai

5P- bai

4P- bai

M- ados, eta... hori da... bale... eta orain ya laugarren blokea ta azkenekoa litzateke, **Eskola**. Eskolan partetikan animatu zaituztete ba eskola kirola egitera edo eskola kiroleko papera apuntatzeko iristen zanen banatzen zizkizueten eta gero ya etzegoen beste inungo animorik edo...

4P- zoze esate ziguen apuntatu, animatu ta hola, baino bestela... ezerrez

3P- nei re baita esaten ziaten

1P- enaiz goatzen

5P- ezta, ni re ez

M- hola behar du (barreak denek)

2P- ni re ezta

M- esan hola benetan ez bazeate goatzen , bota lasai ta ez dao arazoik. Aham... Eta iruitze zaizue gehiago egin beharko litzatekela eskolan partetikan edo oi gero bakoitzak ikusi beharreko zerbait da?

1P- nik uste, jendei animatzea pues nose, nik ustet haiek al duela ____ (26:51)

2P- nik uste ez dala beharrezkoa animatzea, ze ee... azkenen presionatu iteiozu "apuntatu, apuntatu, apuntatu..." ta ordun, pues hobeto da nahi duna itea ta ez bada apuntatzen pues bueno, ez dela ezer pasatzen. Baino bueno, ez da gaizki eoten animatzea pixkat baino ya denbo guztin insistitzen eotea pues ez

____ (27:15) zurrumurrua baxuan

M- hori da, eta gero noizbait galdetzen zizueten aber zemuz zoazten... adibidez, irailean hasten zeate (2P,1P,5P- bai...) eta galdetzen zizuen, ez dakit abendun edo otsailen edo, tarte hortan aber gustoa ai zeaten jokutzen...

2P- ez

M- ... zemuz pasatzezuen, giro ona daukazuen talden...

4P- eztet uste...

3P- ez

4P- ... o bestela enaiz goatzen

1P- giro ona hola, goatzen naiz entrenadore bat esan zigula aber gustoa geuden taldekidekin ta hola ta ni kide batekin enitzan ondo ematen ta nik esaten nun ezetz, horrekin enun naiela ta hola

M- ordun entrenatzaileak igual eskatu zizuen (1P- bai) baloratzeko egoera baino eskola aldetikan... (2P- enaiz goatzen) ezta?

5P- ezta

M- bale, ados ba...bueno, orain ya amaitzen juteko, eee... bale, gaur egun jarraipena ematen diozue orokorrean denok, ez?, kirolari, eta iruditzen zaizue eskola kirolak lagundu dizuela osea jarraipen hori emateko... aipatu dezue bai dantza, bai wu-shu-a, bai atletismoa, dantzarena eta futbola eta halterofiliarena; iruditzen zaizue puntu honetara iristeko baliagarri izan dezuela eskola kirolean aritu izana?

1P- bai

5P- igual bai, ze azkenen aukeraketa in nunen garbigo geatu zitzaian dantza igual gehiago gustatzen zitzaiala, ta horrekin segi det. Ta ez banun apuntatu ba igual ya nazkatu ingo nitzan dantzataz ta igual utzi ingo nun, baino, ez dakit...

2P- bai

1P- ni... nose... kirol eskola hasi nitzanen pos nik kirola iten nun hor ta hola, ta nose, uzten banun nose... enitzan eongo hola... ze netzat kirola asko da

M- aham...

3P- ebaita

M- kirol ohitura bat edo, ez?, (1P- bai) hasteko behintzat abiapuntu bezela eskola kirola iruditzen zaizue lagungarri...

1P- bai

2P- bai

4P-bai

M- ...izan dala edo

1P- ze nire lenengo kirola izan da eskola kirolana ta oi

M- aham... bale, eta iruitze zaizue hemendikan aurrea, ez?, etorkizun baten jarraipena emateko zerikusia izan dezakeela eskola kirolen aritu izana? Osea, adibidez, zuen kasuan jarri burue eta gero zuen lagun bat edo eskola kirolen aritu ez dana, eta gaztetan in ez duna, iruitze zaizue etorkizunen kirola egiteko egoera berdinen zaudetela edo lagungarria izan daitekela eskola kirolen...

2P- lagungarri izan da ze bakizu kirol horren nola... (5P- funtzionatzeun)... arauak ta hola bakizkizu ta ordun etorkizun baten pues nahi bazu apuntatu ba eztezu... eztezu... (5P- berriz ikasi behar dena) berriz ikasi behar dena

4P- oida

3P-ya, oida

1P- ebai

M- aham...

5P- ebaita

M- Ta gero rebai, ez?, kirol ezberdinak ezagutu izana bai pixkat etorkizun baten ere (2P-bai) jakiteko (5P- aham, 1P- bai) baliagarri bezela.

M- Bale, eta orain bai, bukatzeko, beste puntu batzuk eta lixto. Iruditzen zaizue, bueno, aipatutako puntuez gain beste aspekturen bat edo kontutan hartu beharko litzatekeela? Hau guztiarekin zerikusia daukana orain arte aipatu ez deuna? Orain arte aitu gea eskaintza, extraeskolarrak, etxeko lanan asuntua,

gero ba entrenatzaile, familia, ee.. irakaslea, eta gero rebai eskolaren paperaz. Beste punturik edo iruditzen zaizue gehitzeko? Faltan bota dezuena?

4P- ez

2P- ez

1P- ez

3P-ez

5P-ez

M- etzaizue hola okurritzen...

1P- bueno, nik deporte eskolarren goatze naiz mutil batekin earki ematen nintzala ta hola ta oain ya ba enaiz ematen ya, osea, ya pues adiskide oi ya galdu in det

M- ta oi zer da, eskola kirola utzi izanagatik?

1P- bai

M- Osea hor mantentzen (1P-bai) zenuten eskola kirolarekin harreman bat sortu zan baina orain ya...

1P- ta utzi nunen ya, pos ya ezerrez...

M- aham... ordun harremanak sortzeko bezela tresna edo bezela positiboa izan daitekela, ez?

3P- bai

1P- bai

M- lehen aipatu degun bezela beste herri eta ikastetxe batzuetakokin harremanetan egoteko

5P- oida

M- bale, eta zer ekarpen edo zer onura ikusten dizkiozue eskola kirolari?

1P- asko ikasteala

4P- oida, asko ikasteala

2P- kirolei buruz gehio dakizula

M- eta asko ikasten dala hoi zein zentzutan edo aipatzen dezue?

1P- nire lenengo kirola izan zan deporte eskolarra ta, pos nose, nik futbola enekin nola jolaste zan, baloncesto re ez, ta hola, ta ordun, pos nose, ikasi in nun nola jolasten zan ta hola

M- aham...

4P- oida, ikastezu nola dijoan ta nola in behar dan ta hola, osea...

1P- ta nik uste oain futbolen naola , nose, eskola kirolak zeoze in ditela hor...

M- oinarri bat bezela eman?

1P- oida

M- gero ya hortiken (1P-oida) gehiago garatzen joateko

2P- eskola kirolen apuntatu baino lehenago futbolen jolasten banekin, baino sin mas, osea, (4P irten egiten da une honetan) baloia botatzen ta porteria gola sartzen ta yasta, baino arauak en si enekizkin oso ondo

3P- ni rebai, ta nik igual "altura" iten banekin salto in behar zala baino hankak ez dakit, ez nekizkin nola jarri ta hola, ta oain mas o menos bakizkit ta hobeto itet

M- aham... osea, hobeto moldatze zea ta erakutsi dizu nola... kirol horren funtzionamendua ez? Azkenen pausok nola in behar dan, ziklo guztia eta...

3P- bai

M-aham... Oso ondo, eta gero zer mantenduko zenukete, osea zuen bizipenak kontutan izanik orain arte bezela, zer mantenduko zenukete eskola kirolek? Esaten dezuela: "joe, ba begira hau gustatu zait", ez? Igual aipatu dezuen harremanak bezela (2P-bai), ta igual harremanak iteko positiboa dala ordun oi bai mantentzeko ...

1P- bai

2P- bai

3P- bai

M- aham... Ta gero zerbait aldatuko zenukete?

3P-ez

2P- eskola kirolen?

M- bai, gustatu etzaizuen zerbait hola esateko, "beida..."

1P- baloncesto kentzea

M- baloncesto kentzea (kar kar)

2P- ez, netzat kirol guztik dia hola garrantzitsu

M- aham...

5P- ez dakit, nei... ni ondo eon nitzan hola, egia da gauza batzuk hola asko etzaizkizula gustatzen, baino azkenen hola da ta...

2P- in inbeaituzu

5P- dena ikastezu

M- bueno, baino zeintzuk dia puntu hoiek? Azken baten zoze balin baukezu azkenen etorkizuneako hobetzeko eta etorkizuneko neskak ere hobeto senti daitezen edo...

5P- ya, baino eske igual nei ez zaitenen gauza bat gustatzen beste batei oi gustatze zaio ta bestea ez...

M-bai...

5P- ordun oi re ez ezin da kendu...

M- ez ez

5P- ...ze azkenen dena da...

M- dena da oreka bat

5P- bai

3P- ni ondo sentitzen nitzen ta enun eze aldatuko, ta ondo hola

M- holaxe mantenduko zenuke? Gustoa eon zinatenan seinale

3P- bai

M- ba oso ondo, eskertzeizuet izugarri neskak, batetiken lan hau iteko bestela ezingo litzakelako hau aurrea eraman, eta aber etorkizuneako re hobetzeko baliagarri dan. Mila mila esker!

1P, 2P, 3P eta 5P- Zuri!